

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Orio



Aurkibidea

Udalerria: Orio

Sarrera



Urola Kosta eskualdeko herria. Herri arrantzalea, arrantzaren presentziak nabarmen behera egin duen arren. Bertako euskara erdialdeko euskararen aldaera bat da. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAKo (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da. Argazkia [Wikipediatik](#) hartua.

- **Biztanleak:** 5.277
- **Euskaldunak:** %79,9

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **22**
- Zintak: **30**
- Pasarteak: **492**
- Transkribatutakoak: **5**
- Audioak: **26**
- Bideoak: **465**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Emakumeen itsas ondarea
- Euskal Herriko Ahotsak
- Fondo partikularrak
- Orioko curriculuma
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Angel Alustiza Ayerdi (1940)



Beasainen jaioa; seme bakarra. Gurasoak ere beasaindarrak zituen. Besteak beste, CAFen eta Michelin-en lanean ibilia. [Maria Jesus Lertxundi](#) emaztearekin batera egin zion elkarrizketa Donostiako San Ignacio ikastetxeko Iñigo Altuna ikasle azpeitiarrak.

Javier Arruti Izeta *Biraola* (1942-2016)



Aiako Beldarrain baserrian jaio zen, bederatzi anai-arrebaren artean zaharrena. Lau urte zituela, baserria erre egin zen; eta Oriora, kaleko etxera, joan ziren bizitzera orduan. Orioko eskola nazionalean ikasi zuen hasieran; eta, geroago, eskola partikularrak jaso zituen. Hala ere, ikasi baino, Javierrek nahiago izaten zuen baserrira joan, hango lanetan laguntzera. Gaztea zela hasi zen tailerrean lanean, eta 17 urterekin itsasora joatea erabaki zuen. 25 urte zituela, Michelin lantegian sartu zen, eta handik hartu zuen erretiroa. Kontalari trebea eta memoria onekoa, garai bateko bizimoduaren erretratu interesgarria eta aberatsa egin zigun elkarrizketan.

Maria Errazkin Zubigarai (1927-2011)

Karmele Esnal Zulaika (1932-2012)



Orioko plazako etxe batean jaio zen. Ama bertakoa zuen eta aita getariarra. Eskabetxeria zuten herrian, eta baita dendatxo bat ere. Zazpi senide ziren; bost nesketatik lau moja joan ziren. Maria maistrarengana joan zen ume-umetan eta gero eskola publikora. Batxilerra, berriz, Donostian egin zuen, San Bartolome ikastetxean. Izan ere, zazpi urte zituenean Donostiara joan ziren bizitzera. Magisteritza ikasketak egin zituen, hiru urtez Gasteizen interna eta azken urtea Ategorrietan. Elbira Zipitriarekin hasi zen lanean 50eko hamarkadan, isilpeko ikastoletan. Andereño lanetan jarraitu zuen erretiroa hartu arte. Jarrai antzerki taldean ere ibili zen.

Angel Etxeberria (1943)

Arrantzalea

Patxi Etxeberria Zubiria (1930-2025)

"Pako Erretzabal" bezala ere ezaguna, bere herrian. Orioko Erretzabal baserrian jaio zen, Ortzaiako auzoan. Zortzi senide ziren (zaharrena Zumaian jaioa, gainerakoak Orion). Gurasoak Usurbilgoak ziren, Aginagakoak biak ere; hori bai, amaren familia Aian bizi izan zan, Saltxipin. Gerra ostean gazterik hil zen aita, tifusarekin, eta garai gogorrak izan ziren familiarentzat. Aiton-amonak ere beraiekin bizi ziren. Umetatik hasi zen lanean, etxera diru pixka bat eramateko. 9 urterekin eskabete lantegira joaten zen, 11rekin adreilu lantegian zebilen. 13rekin itsasora joan zen, arrantzara. Burgosen egin zuen soldadutza, eta bueltan Orioko ontzian hasi zen lanean. Iñaxi Etxeberria oriotarrarekin ezkondu zen, Lasarte-Oriara, eta arrandegia jarri zuten han. Patxi bertsolaria izan zen: 50 urtetik gora egin zituen plazaz plaza. Bertsolaritzarekin lotutako hainbat kontu kontatu zizkigun.



Emeri Garaialde Artola (1954)

Orioko jaioa, Sarikola auzoan. Gurasoek Orioko alpargata fabrika batean lan egiten zuten eta hantxe ezagutu zuten elkar. Lantegia itxi zenean Usurbilera joan ziren bizitzera. Mitxelino kooperatiban lan egin zuen. Usurbilgo Ramon Aranbururekin ezkondu eta 2 seme-alaben ama.



Pedro Maria Ikazeta Mayoz (1946)



Luis Mari Irastorza Zabala (1931-2018)

Orioko Itxaspe baserrikoa.



Jose Ramon Lakunza Murgiondo Terra (1943)



Orion jaio zen, Aita Lertxundi etorbidean. 5 anai-arrebako familian, bi senide bikiak ziren: bera eta anaia, hain zuzen. Jaio zirenean, kilo bana eskas zeukaten; baina, etxekoen zainketei esker, biak atera ziren aurrera. Gazterik utzi zuen eskola, itsasora joan eta bizibidea ateratzeko. 4 urtean Ternuan ibili zen arrantzan, eta makina bat bizipen atera zituen handik, ahaztezinak, hunkigarriak. Handik itzulitakoan, arrantzan jarraitu zuen, baina etxetik gertuago. Ezkondu eta hiru seme-alaba izandakoa, memorian ondo gordeta ditu garai bateko kontuak, eta halaxe kontatzen ditu.

Divina Lanberri Elizondo (1937)



Orioko Kale Nagusian jaio zen, bost senideren artean bigarren. Eskola nazionalean ikasia, umetatik izan du nortasun handia; maistrari aurre egin eta eskola uztea erabakitzeke adina. Zergatia: doktrina ez zutelako euskaraz ematen. Eskabetxerian lan egindakoa, anaiarekin arraindenda jarri zuen Usurbilen, eta han egin zuen lan erretiroa hartu arte. Ezkondu eta gero ere, Orion bizi izan da.

Maria Jesus Lertxundi Murgiondo (1941)



Orion jaioa, bederatzi senidetan zaharrena. Gurasoak ere oriotarrak zituen. Estankoan lan egin izan du. [Angel Alustiza](#) senarrarekin batera egin zion elkarrizketa Donostiako San Ignacio ikastetxeko Iñigo Altuna ikasle azpeitiarrak.

Xanti Manterola Azpiroz (1940)



Xanti Manterolak bizitza osoa eman du itsasoan edo itsasoari lotuta: 23 urterekin patroi izan zen.

Maria Sagrario Miralles Arostegi (1935-2021)



Maria Sagrarioren amonak, Maria Maestrak, 1897an zabaldu zuen Orioko Goiko eskola Piliku plazan eta 65 urte egin zituen haurtzaindegian lanean. Gaixotu zenean, Maria Sagrariori pasa zion erreleboa eta honek beste 35 urtez jarraitu zuen, 1996an erretiroa hartu zuen arte.

Antonia Murua Iñarra (1926-2018)



Orion jaio zen, sei senideren artean lehena. Aita Amezketakoa zuen, Oriora etorria eta arrantzale sartutakoa; ama, berriz, Getarian jaioa zen, ume zela Aiara bizitzera etorria. Gerra hasi zenean, Oriotik alde egin behar izan zuten eta urtetan egon ziren amaren lagun on baten etxean. Gerra bukatutakoan eta Oriora itzuli zirenean, herria suntsituta zegoen eta pixkanaka berreraiki zuten denen artean. Ume-zaintzaile eta sare-konpontzaile lanetan ibilia, ezkondu eta 8 seme-alaba izan zituen. Geroztik Orion bizi izan zen seme-alaba eta bilobaz inguratuta.

Patxi Oliden Gonzalez de Txabarri Danbolin (1923-2020)



Orion jaio zen Patxi `Danbolin´. Irakaslea, organista, konpositorea eta asmatzailea. Hego Euskal Herriko lehenengo surf taulak egin zituen, 1960ko hamarkadan. Musikari autodidakta, 55 urterekin gitarra ikasi zuen, organo-jotzailea ere izan zen eta abesbatza bat zuzendu zuen. Korurako doinuak sortu eta harmonizatu zituen; 7.000 musika-partitura baino gehiago sortu zituen. Zubietako Lanbide Eskolan irakaslea izan zen urte luzez, erretiroa hartu zuen arte. `Orio herrixka´ liburua argitaratu zuen 2008an.

Manuel Rodriguez Solabarrieta (1913-1982)



Maria Luisa San Sebastian Eizagirre (1917-2007)

Orion jaio zen 1917. urtean, Kanpanario baserrian. Felix Bereziartuarekin ezkondu, eta Aginagako Uriberri baserrian jarri ziren bizitzen. Hiru seme-alaba izan zituzten.

Maria Luisa San Sebastian Larraza (1947)



Maria Luisa San Sebastian 1947an jaio zen Orion. Aita arrantzalea zen eta ama Orioko eskabetxera batetako arduraduna. Hamar urterekin hasi zen eskola ondoren eskabetxeraren lanean eta hamahiru urterekin utzi zuen eskola. Eskabetxeraren inguruko kontuez eta garai bateko Orioko kontuez hitz egiteko elkarrizketatua izan da bere ahizpa Maribel San Sebastian-ekin batera, *Emakumeen itsas ondarea* proiekturako.

Maribel San Sebastian Larraza (1944)



Maribel San Sebastian 1944an jaio zen Orion. Aita arrantzalea zen eta ama Orioko eskabetxera batetako arduraduna. Hamar urterekin hasi zen eskola ondoren eskabetxeran lanean eta hamahiru urterekin utzi zuen eskola. Eskabetxeraren inguruko kontuez eta garai bateko Orioko kontuez hitz egiteko elkarrizketatua izan da bere ahizpa Maria Luisa San Sebastian-ekin batera, *Emakumeen itsas ondarea* proiekturako.

Teresa Jesus Solaberrieta Urdangarin (1933)



Orion jaio zen, 5 anai-arrebaren artean azkena. Eskola nazionalen eta partikularrean ikasi zuen; eta, 14 urte zituenean, familiak taberna bere gain hartu zuenean, han hasi behar izan zuen Teresak lanean. Oso gogoan du Orio nolakoa zen lehen, eta ederki azaltzen du elkarrizketan.

Joxe Mari Zumeta Maritxalar (1947)



Orioko Zalmaizti baserrian jaio zen (Aginagatik oso gertu). 6 anai-arreba ziren familian. Angulatan Aginagakoekin batera aritutakoa da. Gaur egun ere, Zalmaizti baserrian bizi da eta beti baserri-lanetan aritu izan da. Aginagako beste hiru lagunekin batera ([Patxi Maioz](#), [Juanito Galarraga](#) eta [Benito Aranburu](#)) egin zioten elkarrizketa Hitza Jasoz taldekoek, grabazio hauetan: [USU-044](#) eta [USU-045](#).

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Itsasoa

1.1. Antxoa txukun jarri behar

- **Hizlaria(k):** Esnal Zulaika, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ORI-005/010
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:19:57. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena:** Eskabetxe-fabrikako latatan Gipuzkoako Aldundiaren ezkutua azaltzen zen. Barririk egiteko materiala Aurizperritik ekartzen zuen aitak. Antxoaren kapak txukun jarri behar ziren, Genoako portuan ondo begiratzen baitzuten jeneroaren kalitatea.

Transkripzioa

- Latak nundik ekartzen ziran?

- Lata... Ez dakit nundik ekartzen zituzten. Baina ya eskudo ta guzti, e? dana.

- Ya preparatuta, betetzeko.

- Dana. Eta barrikak... barriketan eiten zuten, horrei esaten zaio lata, latatxo, material horrei. Eta hori ekartzen zun gure aitak Burgetetatik, zeatik, Espinaletik, Orreagako aldamenetik. Eta horrekin eiten zitun barrikak. Porke saltzen ziran antxoak barriketan eta latetan. Eta esaten zun Italin, Genovan, portura iristen zanian, italiarrak iten zutela: bai, gainerik oso ondo dago, ezta? Ordun, eskua sartu eta antxoa ikusi nola zeon beheran. Porke, klaro, batzuri, horreatik gure aita ibiltzen zan "Ez, nei ez mordoillua jarri; antxoa jarri behar da dana igual". Porke batzuk, badakizu, hartu eta pf! Antxoa hola ez zan bota behar! Jarri behar zan azkenengo kapa bezela aurrenekoak ere. Ordun, iten omen zuten italiarrak eskua sartu eta atera. Bai.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Hondartzan asko ibilitakoak

- **Hizlaria(k)**: Esnal Zulaika, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Etxeberria, Idoia
- **Erref**: ORI-005/035
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 01:00:52. **Bukatu**: 01:02:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena**: Hondartzara asko joan izan dira, bai Orion, bai Donostian ere. Igerian nola ikasi zuten azaltzen du. Artilezko bainujantziak eta bainu-batak erabiltzen zituzten garai hartan hondartzan.

Transkripzioa

- Ta zuek hondartzara ´re jungo ziñaten.

- Josus! Bizi guztiya pasa deu hondartzan.

- Oriyon ere...

- Bai Oriyon ta bai Donostiyan.

- Orduan, igeri egiten ikasiko zenun.

- Jesus! Gure aitak erakutsi ziyon neba zaharrenai, hartu gizon bat, arrantzale bat, batela baten sartu, ta gure anaiya hartu, ta jartzen ziyoten soka bat, ta botatzen zuten ibaian, ta ala! Ta hala ikasi zun igari. Guk ez, gu hondartzan, gu antillan ibiltzen giñan ta...

- Trajebaiñurik eta?

- Baita´re. A! Ez dakizu, gaiñea, lanazko trajedebaiñua euki det nik.

- Bai?

- Lanazkua! Busti ta pisatzen zun... buu! Ez hoztutzeko.

- Ez hoztutzeko?

- Baiño ez zan lehortzen...

- Okerrao.

- Bai, bai, ta albornoza´re bai. Baiñatu ta gero albornozakin. Lehortu ondo-ondo, aldatu ta baita´re. Ez, ez, ez, ez, "yo he sido una niña... una niña bien, eh!", ez naiz izan hola pobrezian-ta bizitu naizena, ez, ez, ez. Denbora haietako bizitu naiz...

2.2. Hondartzako ohiturak eta estetika

- **Hizlaria(k):** Esnal Zulaika, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ORI-005/038
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:06:00. **Bukatu:** 01:08:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena:** Mutilek lehen ezin izaten zuten tirantetako kamiseta gabe ibili. Hondartzan baziren ohitura batzuk arropari lotutakoak, eta haiek aipatzen ditu. Karmeleren bainujantzia nolako zen azaltzen du. Udan asko joaten ziren hondartzara senideak eta lagunak denak elkarrekin. Mutilak kaian bainatzen ziren, ez hondartzan. Lehen beltzaran jartzea baserritar izatearen seinale zenez, denak estalita joaten saiatzen ziren zuri egoteko.

Transkripzioa

- Eta hor mutillak-eta ezin ziran ibili tirantedun kamiseta gabe, ez?
- Ez! Ez! Eta ezin ziñan hondartzan aldatu, kabinara jun behar zendun nahi ta nahi ez. Ta mutillak jun behar zuten kamiseta ta galtzak; ta guk, zea, trajedebaiñua gonakin, belauneaiño eo hola pixka bat.
- Ta trajedebaiñuak holakuak ze iten zian in ala erosi?
- In ta... honbre, erosi're itea bazeon, baiño iten bazendun, guri denda baten in zizkiguten lanazkuak, oaindik gogoratzen naiz, granatiak eta marra txuriyakin. Gorputza marra txurikin ta bestia, behera, granatiakin.
- Ta gero gona aparte ala...?
- Ez, berakin .
- A, gona... dana bat zan?
- Dana bat zan. Horregatik, baiñatzen ziñanian, buu! Dana...
- Gona luzatu.
- Pisatu iten zun.
- Eta zuek asko juten ziñaten hondartzara?
- A gu... udan hondartzaa.
- Neskak eta mutillak elkarrekin ala aparte?
- A! gu, gaiñea, senideak juten giñan, eta lagunak etortzen zian. Ez, ez, ez, ez, hori ez zeon. Hemen baiñatzen gizonak eta... ez, ez, ez, ez, hori dana... Ba, esaten dizut, ez zian juten baiñatzea mutillak hondartzara. Mutillak baiñatzen zian kaiyan, hantxen. Nola Donostian esaten dute "eche una perrita"? Pues kaiyan. Hondartzara? Ke ba! Hondartzara ez zian juten.
- Eta hemen ere ez? Donostian ere ez ziran juten?
- Bai, baiño familiyakin, familiyakin.
- Orduan ez zeon euzkiya hartzeko ohitura haundirik, ezta? Moreno jartzia-ta ez zan orduan oain bezela...
- Obsesiyu hori ez zeon. Ez, gaiñea, gure amak-eta esaten zuten: lehen beltzez zeudenak baserritarrak, lana, ba, zean iten zuenak, soruan-ta iten zutenak. Ordun danak ibiltzen zian tapatuta, txapela lastozkua ta, zea, zapi txuriya, ta... tapatuta dana.
- Azal txuriya orduan...
- Eukitzia moda ordun.
- ... dotoreago?
- Dotoreagoa zan.

2.3. Halloween euskalduna umetan

- **Hizlaria(k):** Esnal Zulaika, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ORI-005/045
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 01:15:57. **Bukatu:** 01:16:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Lehen, umetan, kalabazak husten zituzten, begien eta sudurraren zuloak egin, kandela bat barruan sartu, eta arrosariotik jaisten ziren emakumeak beldurtzeko erabiltzen zituzten.

Transkripzioa

- Haloween! Bueno, pues hoi iten zan gure herriyan: mutillak gabian kalabazak husten zituzten, iten zizkioten begiyak eta sudurren zuluak-eta, kandela bat sartzen ziyoten piztuta, ta emakumiak errosaiyotik jeixten zianian, kale estu batian jartzen zizkioten haiek. Ta esaten det jolin! oain, haloween...! Hori ikusi det nik gure herriyan, udazkenian, azaroan.

- Ta hori ze iten zan beldurtzeko?

- A! Pues... Ta badakizu, "Mutil zahar hauek...!" ez dakit zer ta badakit zer ta... andre guztik. Ta mutillak, bueno...!, "Bildurtu dizkiyau, bildurtu dizkiyau!".

3. Baserria

3.1. Hondartzako bainuzainak eta etxetxoak

- **Hizlaria(k):** Esnal Zulaika, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ORI-005/037
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:03:45. **Bukatu:** 01:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena:** Bainuzainen uniformeak nolakoak izaten zen azaltzen du. Bainuzainen lana, hondartzako etxetxoak... aipatzen ditu. Hondartzako etxetxoak idiekin mugitzen zituzten batetik bestera.

Transkripzioa

- Eta baiñeruak nola jantzita ibiltzen ziran?

- A! Ibiltzen zuten traje, hola, felpazkua bezela, zea batekin, urdiña izaten zan, urdin illuna, eta gero zea bat txuriya, ta pues zea're bai, marinero bezela, txuriya ertzetan. Eta hola ibiltzen zian jantzita.

- Buruan zerbait?

- Ez, ez, ez, buruan ezer ez, buruan ezer ez.

- Ta galtza luziak?

- Galtza luziak. Uretaa sartzen zianian doblatzen zituzten pixka bat galtzak, baiño hola.

- Eta igari iten erakusten zuten ala bakarrik zaindu, ez itotzeko?
- A! Baiño zuk pagatzen bazenion, pues hartzen zenuten eskutik, Zaragozanak eta hórrela, eta ala! ala!. eta olatua etortzen zanen altxatzen zituzten ta hórrela.
- Eta kasetak bazeuden?
- Bai, egurrezkoak, txuri-urdiñak, bai, bai, bai.
- Eta mugitu iten ziran gora ta behera ala?
- Kurpillakin.
- Bai? Ta nola eramaten ziran eskuz ala...?
- Gurdiz. Beti eoten zian toki batian, baiña ekartzen zituztenian, eta ez dakit ikusi dituzun argazkiak, adibidez, e... Victoria Eugenia erregiña ta Maria Cristina erregiña ta, eramaten zituzten gurdiz.
- Bai, idiyekin, ezta?
- Idiyekin eramaten zituzten ur ertzea, baiño bestela eoten zian beti toki batean.
- Ta zuk ezautu dezu hori, idiyekin...
- Nik idiyakin ez det ezautu. Baiño kasetak txuri-urdiñak Oriyon ziran atekin, erdiyan beste atia... Ordun, bat sartzen zan alde batetik ta bestia bestetik.
- Ta zer zeon barruan eserlekun bat eo...?
- Baita're, asientu... alki bat.
- Ta palangana bat edo...
- Ez, ez, ez, ez, ez, egurra, tablak, taulak. Ez, ez, jaztea sartzen ziñan, han ez ziñan sartzen dutxatzea ta hórrela. Han sartzen ziñan jaztea edo eraztea.
- Aldagela batzutan bazeuden, bazeon hankak garbitzeko...
- Ez, ez, ez, hori oso modernua izango da. Ez dao...

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Lurdesko kalbarioak ikustera (ORI-001/002)

Maria behin iritsi zen Lurdesera senarrarekin eta, hura gustatuta, berriz ere joan zen koinatuak gonbitea egin zionean. Hango kalbarioak gustatu zitzaizkion, belauniko joaten ziren bidean. Ama Birjinak mugitzen ikusten zituela eta beragana zihoazkiola iruditzen zitzaion.

2. Ama Doloretakoa eta Jesus "bizirik" (ORI-001/004)

Ama Doloretakoa gurutziltzaturik zegoen eta beldurra ematen zion Pakitari hura eta Jesus mugitzen eta berari begira ikusten zituenean. Lagun eta ezagunei kontatu zien han zegoela eta haiek ere sentitu zuten halako zer bait.

3. Kandelak hartuta prozesiora (ORI-001/005)

Handik jaitsi eta kandelak hartuta prozesiora joan zen. Oraingo honetan zutik egin zuten arrosarioa errezatuz. Luzea izaten zen eta bukaeran Ama Birjinari muxu ematen zitzaion eta limosna botatzen zen.

4. Bernarditatxo eta Ama Birjinaren bizitokia (ORI-001/006)

Arratsaldean berriz ere Bernarditatxo eta Ama Birjinaren bizilekua ikustera joan ziren eta iloba monagiloak azaldu zizkien haren inguruko kontuak. Azaldu zizkien kontuak azaltzen ditu.

5. Merienda denak elkaturik (ORI-001/007)

Hura ikusi ondoren merienda egin zuten denak elkartuta, eraman zituzten gauzak elkarrekin banatuz.

6. Toki guztietako jendea Lurdesen (ORI-001/009)

Ez zen zaila han galtzea, izan ere toki askotako jende ugari biltzen zen bertara.

7. Aia, Igeldo eta Oriokoak Lurdesera (ORI-001/011)

Gustura geratu zen egindako bidaia harekin eta urtero egiten dute denak elkartuta. Berriz ere errepikatzeko moduko aukera deritzo. Igeldo, Aia eta Oriokoak joaten dira autobusez.

8. Lurdesko oroitzapenak (ORI-001/013)

Bidaia hartako oroitzapenak gogoratzen ditu.

9. Antxoaren eta atunaren kanpainak (ORI-004/001)

Antxoa-kanpaina noiztik nora den. Lan-egunak eta ordutegiak. San Pedroetan bukatzen da kanpaina eta atunarena hasten da. Atuna dagoen lekura joaten dira arrantzara.

10. Arrantzarako sare ezberdinak (ORI-004/002)

Udaberrian sarea erabiltzen da. Sareen neurriak.

11. Atuna arrantzatzen ordu luzez; mareak (ORI-004/003)

Atun-kanpaina udan denez, egunak oso luzeak dira. Beti dago norbait guardia egiten ontzian. Mareak. "Kantila".

12. Itsasontzian zer jaten den (ORI-004/004)

Itsasontzian jaten dutena: gosaria, hamaiketakoa, bazkaria, askaria eta afaria. Oso ondo jaten dute itsasoan daudenean. Hozkailuetan gordetzen da janaria.

13. Itsasontzian nola lo egiten den (ORI-004/005)

Itsasontzian nola lo egiten duten. Baporea gehiago mugitzen da. Literetan lo egiten dute.

14. Itsasontziek komunikatzeko duten tresna (ORI-004/007)

Itsasontziek komunikatzeko duten tresna. Isilpean gordetzen da non dauden arrantzan, beste itsasontziek jakin ez dezaten. Lehorrean ematen den informazioa oso azkar zabaltzen da.

15. Itsasontziko gastuak; lizentziak (ORI-004/008)

Itsasoko kuadrilan 8 lagun dira. Gastuen banaketa nola egiten duten. Lizentziak.

16. Atuna eta antxoa ezberdin saltzen dira (ORI-004/009)

Atun asko harrapatzen denean, merkeegi saltzen da eta arrantzaleek gutxiago kobratzen dute. Antxoarekin ez da gertatzen. Izkutuan saltzen, estraperloa.

17. Orio lehen eta orain (ORI-005/002)

Orio asko aldatu da Karmele txikia zenetik. Lehen politagoa omen zen.

18. Etxeko negozioaren nondik norakoak (ORI-005/003)

Umetan denda zeukaten Orion. Denda hori amaren aldeko amonaren taberna izan zen; baina amak negozioa hartu zuenean, aldatu egin zuen negozioaren funtsa eta errazionamenduan banatzen ez ziren produktuak saltzen zituzten: gailetak, ardo goxoa...

19. Aitak eskabetxe-fabrikan egiten zuen lan (ORI-005/005)

Ama Oriokoa zen eta aita Getariakoa. Aita eskabetxeroa zen, latak ixten jakiteko ikasketak egin zituen Bilbon. Oriora lanera etorri zenean, emaztea ezagutu eta ezkondu egin ziren. Eskabetxe-fabrika zeukan eta non zegoen azaltzen du. Fabrika haren aurrean, baratzea zeukan aitak, eta fabrikaren horman arrosa zuriak. Fabrika zaintzeko, txakurra zeukaten eta hari bazkaria emateko txandak egiten zituzten senideen artean.

20. Eskabetxe-fabrikako latak Italiara esportatzen (ORI-005/006)

Eskabetxe-fabrikan emakumeek eta mutil gazteek egiten zuten lan: haien lana zein izaten zen azaltzen du. Fabrikako antxoa Italiara esportatzen zuen Genoako portura. Antxoa-lata haietan Gipuzkoako Aldundiaren ezkutua azaltzen zen; latak nolakoak ziren aipatzen du.

21. Aita frankismoaren biktima (ORI-005/007)

Aita, udazkenero, Genoara joaten zen autoz Fiat batean, beste 4 gizonekin batera. Han, tratuak egiten zituen. Franco iritsi zenean, ordea, dena pikutara joan zen, engainatu egin baitzuten. Orduetik aitak ez zuen bururik altxa beste negozioekin.

22. Eskabetxe-fabrikako langileak eta lan-baldintzak (ORI-005/008)

Aitaren eskabetxe-fabrikako langile kopurua ez zen finkoa: izan ere, emakumeak etxean lanik ez zutenean joaten ziren lanera, txanpon batzuk ateratzera. Langileei orduko ordaintzen zitzaien. Langileen janzkera nolakoa izaten zen aipatzen du.

23. Antxoa lantzeko prozesua (ORI-005/009)

Emakumeek eta mutil gazteek egiten zuten lan aitaren eskabetxe-fabrikan. Antxoa lantzeko prozesua eta tresnak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

24. Eskabetxe-fabrikako kateko ekoizpena (ORI-005/011)

Antxoa eskabetxe-fabrikara iristen zenean, mutilek tinatik ateratzen zituzten antxoak eta emakumeek burua eta tripak kentzen zizkioten, gero latatan sartzeko. Kateko ekoizpena zen hura. Antxoak garraiatzeko egurrezko gurdiak erabiltzen zituzten.

25. Antxoaren salmenta (ORI-005/012)

Antxoaren salmenta nolakoa izaten zen azaltzen du: "mío!", bolaren sistema...

26. Arroa: antxoak neurtzeko unitatea (ORI-005/013)

Antxoak itsasontzitik ateratzeko neurria arroak ziren. Arroak nolakoak ziren azaltzen du.

27. Etxeko dendaren martxa (ORI-005/015)

Etxeko dendan jendea ez zen etengabe joan-etorrian ibiltzen. Dendako altzariak eta dekorazioa nolakoak ziren azaltzen du. Kontuak eskuz egiten zituzten.

28. Maria maistrarekin ikasitakoa (ORI-005/016)

Orioko eskola publikoan ikasi zuen: lehenengo, Maria maistrarekin Goiko Kalen. Han nola ikasten zuten azaltzen du.

29. "Anti... zer?" (ORI-005/018)

Maria maistrarekin, mutilak eta neskak egoten ziren denak batera, eta dena euskaraz egiten zuten. 5 urte betetakoan, beheko eskolara joan ziren ikastera: gaztelaniaz ikasten zuten han, neskak eta mutilak aparte jarrita; hango maisu-maistrak aipatzen ditu. Maistra bati buruzko anekdota kontatzen du.

30. "Maestra berritsu" eta haren jenio txarra (ORI-005/019)

Eskolan, Cara al Sol abestu behar izaten zuten. Antzerkiak egiten zituzten eskolan. "Maestra berritsu" deitzen zioten maistra bati. Behin mutil batek "berritsu" esan zion kolean, eta salaketa jarri zion. Mutil hura Donostiara eraman zuten adingabekoen epaitegira.

31. Eskolako zigorrak eta umeen ideiak (ORI-005/020)

Euskaraz hitz egiteagatik zigortu egiten zituzten. Bere ahizpei jarritako zigorrak aipatzen ditu; eskola guztiak zigorra prestatuta edukitzen zuen. Masailekoak ere ematen zizkieten, baina hori baino gehiago ez.

32. Amak hezkuntzari ematen zion garrantzia (ORI-005/022)

5 urte zituen arte ikasi zuen Orion, eta orduan Donostiara etorri zen familia osoa. Ama emakume jantzia zen eta seme-alabei hezkuntza ona eman nahi izan zien. Amak erabaki zuen denak Donostiara joatea, eta horretarako zer arrazoi hartu zituen kontuan aipatzen du Karmelek.

33. Gasteizen maisutza ikasten (ORI-005/023)

Gasteizen barneko ikasle izan zen hiru urtez maisutza ikasten aritu zen garaian. Azken urtea Donostian ikasi zuen, amarekin egoteko, 4 ahizpak moja joan baitziren.

34. San Bartolomeko uniformeak (ORI-005/025)

San Bartolomen ikasi zuen garaian, uniformeak eramaten zuten: nolakoa izaten zen azaltzen du. Neskek bakarrik ikasten zuten San Bartolomen, eta dena gaztelaniaz izaten zen.

35. Gasteizko moja karmelitekin ikasten izandako bizimodua (ORI-005/026)

4 urteko batxilerra ikasi zuen San Bartolomen; geroago, maisutza ikasi zuen Gasteizen 3 urtez. Gasteizko mojak karmelitak ziren, eta non zeuden azaltzen du. Gasteizen nola ikasten zuten aipatzen du. Diziplina zorrotza zen han.

36. Gasteizko mojetako uniformeak (ORI-005/028)

Gasteizen ikasten egon zenean, uniformeak erabiltzen zuten: nolakoak zen deskribatzen du.

37. Gasteizen eta Donostian maisutza ikasten (ORI-005/029)

Gasteizen Magisteritza egin zuenean, aukera bazeukan euskaraz hitz egiteko. Etxera opor-garaian itzultzen ziren. Maisutzako azken urtea Donostian ikasi zuen, Ategorrietan.

38. Landeau zalgurdiak Donostian (ORI-005/031)

Triunfo kalean alondegia zegoen lehen. Alondegia hura nolakoak zen azaltzen du. Lehen zer garraio izaten ziren Donostian azaltzen du: Landeau... Txillidaren amonak bi hotel zituen eta goizero-goizero Landeau zalgurdian joaten zen San Martin plazara erosketak egitera.

39. Etxe inguruko merkataritza (ORI-005/032)

Beraien etxe inguruko merkataritzari buruz hitz egiten du. Hotel Niza eta Biarritz zeuden han eta kanpotarrak etortzen ziren hara.

40. Donostiako "guardavinoak" (ORI-005/034)

Donostian "guardavinoak" Ategorrietan eta merkaturan egoten ziren; haien janzkera nolakoak izaten zen azaltzen du.

41. Umetako jolasak oraindik gogoan (ORI-005/040)

Umetako jolasak aipatzen ditu: sokasalttoa, txarpak (arkume-hexurrak), txapak, txorromorropikotailoke, kuxkumekoka... Sokasaltoko kantak gaztelaniaz izaten ziren.

42. Kilker bila joaten zirenekoak (ORI-005/043)

Kilker bila joaten ziren: zuloetan pixa egiten zuten kilkerak irten zitezten. Kilkerak etxean edukitzen zituzten gero, eta nola zaintzen zituzten azaltzen du. Zapaburuak eta igelak harrapatzen ere ibiltzen ziren.

43. Orioko ospakizun bereziak (ORI-005/046)

Orioko egun bereziak: San Pedro festak, Gorpuzti Eguneko prozesioa, Maiatzeko loreak…

44. Elizaren indarra eta ohiturak Orion (ORI-005/047)

Lehen Elizak indar handia zeukan. Ohituraz joaten ziren lehen elizara. Orioko apaizak aipatzen ditu. Jaunartze txikia Orion egin zuen; dotrina ikastera asteaz behin joaten ziren elizara eguerdian, euskaraz izaten zen… Latinez ere abesten zuten elizan.

45. Gabonetan etxez etxe kantari (ORI-005/049)

Orion etxez etxe abesten joaten ziren Gabonetan jaiotza txiki batekin. Ohitura zen Gabon eguneko eguerdian dendariak balkoitik gauzak botatzea. Gabonkanta batzuk aipatzen ditu.

46. Bedeinkazioa lortzeko ohiturak (ORI-005/050)

Lehen ez zegoen ohiturarik Santa Ageda egunean abestera joateko. Inauterietan mutilak baserriz baserri ibiltzen ziren oilasko bila gero harekin afaria egiteko. San Juanetan sua egiten zuten: hartarako materialarekin izaten zituzten komeriak aipatzen ditu. Lore-sortak elizara eramaten zituzten bedeinkatzera. San Juan ermitan artoak jartzen zituzten apaingarri. Erramua erramu-igandean bedeinkatzen zuten. Erramua leihoan eta atean jartzen zen izpiritu txarrak uxatzeko. Ur bedeinkatua noiz erabiltzen zuten azaltzen du.

47. Ohera joan aurretik kontzientzia aztertzen (ORI-005/051)

Etxean arrosarioa egunero errezatzen zuten. Ohera joatean egunean zer moduz portatu ziren aztertzen zuten.

48. Getaria eta Orioren arteko ika-mika, balea zela eta (ORI-005/053)

Orioko balearen istorioa kontatzen du: getariarrek ikusi eta oriotarrek harrapatu omen zuten. Balea Orion jarri omen zuten erakusgai, baina ordaindu egin behar zen hura ikusteko. Karmeleren aitak zulo batetik ikusi zuen balea, ez ordaintzeagatik.

49. Orion estropadak zuten garrantzia (ORI-005/054)

Arrantzan ika-mikak egon izan dira herrien artean. Garai batean Orion asko harrapatzen omen zen, inbidiagatik (esaten zuten). Orion arraunak garrantzi handia izan du. Lehengo estropadak eta arraunketa nolakoak izaten ziren azaltzen du. Oriotarrek irabazten zutenean, ongietorri izugarria egiten zitzairen herrian. Karmeleren etxean bakarrik zegoen telefonoa garai hartan; Kontxako estropadak zirenean, etxe aurrean jende pila bat izaten zuten telefonoak noiz joko zain, estropadak irabazi al zituzten jakiteko. Herria horiz apaintzen zuten.

50. Estropadak Kontxan eta Orio bihotzean (ORI-005/055)

Kontxako estropadetako giroa nolakoa izaten zen azaltzen du: epaimahaia Club Nauticon egoten zen, hainbat traineruk hartzen zuen parte; Orio animatzeko abestia kantatzen du. Orduan pobrezia handiagoa zegoen.

51. Taxian ibiltzeko ohitura (ORI-005/056)

Trenez gutxi ibiltzen ziren. Donostiara noiz etortzen ziren azaltzen du. Taxian ibiltzen ziren Karmele eta bere familia Iruna joateko, Lezora joateko; Lezon Santo Kristoren eliza. Orioko taxilaria Zaldua zen; jende gutxi erabiltzen zuen, baina, taxia.

52. Herriko orduko telefonoak (ORI-005/057)

Bazegoen mandatugilea Orion: Maria Petra. Orion telefono-zentralita zegoen elizara igotzeko aldapan. Lehen telefonotik deitzeko konferentzia bidez izan behar izaten zen. Lehengo telefonoak nolakoak izaten ziren deskribatzen du.

Etxean bazuten telefonoa, aitak eskabetxe-fabrika eramateko behar zuelako. Amari ez zitzaion gustatzen besteek baino gehiago zutenik erakustea. Goserik ez du pasa izan Karmelek, baina luxurik ere ez du izan.

53. Jostailuak egiteko sormena eta ahalmena (ORI-005/058)

Igandeetarako, arropa desberdina, hobe, erabiltzen zuten. Txikitan zer jostailu izan zituzten azaltzen du. Behin panpinaren barruko zerrautsa begian sartu zitzaion, eta Donostiara eraman behar izan zuten okulistarengana. Lehengo panpinak ez ziren mugitzen. Etxean jostailu berriak sortzen zituzten, sormen handia zuten orduan.

54. Garbitegia emakumeak arropa garbitzen eta kontuak kontatzen (ORI-005/059)

Orioko garbitegia non zegoen azaltzen du. Emakumeak joaten ziren hara gobara egitera eta kontu-kontari aritzera. Txinbo eta Lagarto xaboiak erabiltzen zituzten arropa garbitzeko. Emakume batzuek beste emakume batzuentzat garbitzen zuten, baina gutxik.

55. Etxeko garbiketak eta ekonomia (ORI-005/060)

Sukaldean ekonomia zuten eta harrikatza erabiltzen zuten hura pizteko. Etxea garbitzeko, argizaria, zepiloa eta alanbrea erabiltzen zituzten, besteak beste. Menda-belarra usain goxoa izateko eta arkakusoen kontra egiteko erabiltzen zuten.

56. Aitaren eskabetxeria (ORI-006/001)

Orion zuen aitak bere eskabetxeria. Kanpotar jendea etortzen zen batzutan, antxoa garaian, sardiniarrak batik bat. Aitak eskabetxeria utzi zuenean Eugenio Azkuek erosi zuen hau.

57. Orioko industria (ORI-006/002)

Ebanistak eta arrantzaleak ziren nagusi Orion. Arrantzale gisa, ordea, diru gehiago irabazten zen, eta ofizio batetik bestera ibili ohi ziren asko.

58. Arrantzaleak porroia hartuta (ORI-006/003)

Arrantzaleak tabernatan ibiltzea oso ohikoa zen. Askotan taberna kanpoan egoten ziren porroia hartuta, tertulian.

59. Porroia, Jorge Oteizaren ordainsaria (ORI-006/004)

Oteizak artelanak egitearen truke porroia ematen zuen, dirurik ez.

60. Dantza egiteagatik zigortuta (ORI-006/006)

Igandetan Orioko plazan jotzen zuen bandak. Horrela, balsean eta soltean egiten zuten dantzan. Oso zelatatuak izaten ziren emakumeak herrikoen artean, eta berehala jakiten zen nor egin zuen dantzan eta non. Jaunartzea egitean zigortu egiten zituzten dantzan aritzeagatik.

61. Meza euskalduna neskameentzat (ORI-006/007)

Donostian neskame euskaldunak egon ohi ziren. Hauei meza euskalduna egiten zieten.

62. Orioko kaleetan euskaraz (ORI-006/008)

Orion denak euskaldunak ziren. Hala ere, gaztelaniaz egiten zuten batzuek, maila sozial altuagokoak zirela erakusteko. Hitanoaren erabilera ere oso zabala zen senide eta lagunartean, baina nobiotan hasitakoan zukara pasatzea zen ohikoa. Karmelek gurasoei eta apaizari berorika egiten zien.

63. Oriotik Donostiara giroa erdaldundu (ORI-006/009)

Orion dena euskaraz egitetik, Donostian euskara etxean bakarrik erabiltzera pasa zen Karmele. Hala ere, egin zituen lagun guztiak etxetik euskaldunak ziren.

64. Majisteritza ikasketak (ORI-006/011)

Ategorrietan burutu zituen majisteritza ikasketak. Irakasle batzuk euskaldunak baziren ere, eskolak erdaraz izaten ziren.

65. Elvira Zipitriarekin lanean (ORI-006/012)

Lagun baten eraginez, Elvira Zipitriarengana jo eta maistra lanetan aritzeko eskaini zuten euren burua. Urtebetez praktiketara aritu zen, eta gero lanean.

66. Karmelek irekitako ikastola (ORI-006/014)

Pisu bat alokatu zuen Karmelek Donostiako erdigunean, Elvira Zipitriak jaso ezin zituen adin tarteko umeak hezteko. Elviraren metodologia jarraitu zuen berak.

67. Elvira Zipitriaren pedagogia (ORI-006/015)

Pedagogia aktiboa zuten ikastolan. Lurrean egiten zuten dena. Txotxak, babarrun aleak etab. erabiltzen zituzten material gisa.

68. Ikastolara polizia joan zenekoa (ORI-006/016)

Behin polizia joan zen Karmelek ikastola zuen pisura. Lagunen seme-alabak zirela esan zuen. Material didaktiko gisa Xabiartxo erabiltzen zuten, edo honen kopia mekanografiatuak.

69. Ikastolako kantuak (ORI-006/017)

Goizero-goizero kantuan aritzen ziren ikastolan, maistra eta ikasle. Folklore giroko abestiak abesten zituzten batez ere.

70. Azeria eta belearen ipuina (ORI-006/018)

Karmelek ikasleei kontatzen zien azeriaren eta belearen ipuina kontatzen du pasarte honetan.

71. Ikastolan ostegunero ibilaldia (ORI-006/020)

Ostegunero paseoan joaten ziren Kristina Eneara, Amarako burnizko zubira... San Juan sua ere egiten zuten. Irteera hauek naturaren ingurukoak ikasteko erabiltzen zituzten. Otoitzak eta ikasketa kristauak ere lantzen zituzten ikastolan, gabonetan batez ere.

72. Ikastolan neska-mutilak elkarrekin (ORI-006/021)

Elvira Zipitriaren metodologia oso ezberdina zen beste eskoletakoarekiko. Azken urtean elebiduna izaten zen, gaztelaniazko gramatika ere lantzen zuten. Ezkutuko irakaskuntza zenez, adin batetik aurrera beste eskoletan matrikulatu behar izaten ziren umeak, eta lehenagoko hezkuntza eskola partikular bidez egina zela esaten zen, ikastola ez zelatzeko.

73. Ikastolatik eskolarako jauzia (ORI-006/022)

Ikasleentzat aldaketa handia izaten zen ikastola utzi eta eskola batean ikasten hastea.

74. Maistra euskaldunen falta (ORI-006/023)

Karmeleren ondoren pisuak alokatu eta ikastolak antolatu zituzten beste emakume batzuek, baina orokorrean maistra euskaldunik ez zen ia.

75. Hamar duro klaseko (ORI-006/024)

Gurasoek ordaintzen zietena izaten zen Karmele eta gisakoen soldata, Gizarte Segurantzarik gabe. Klaseko hamar duro kobratzen zituen Karmelek hasiera batean.

76. 1963: Donostiako lehen euskarazko eskola (ORI-006/025)

Arriskatua zen oso seme-alabak ikastolara eramatea, abentura bat. Ahoz ahoko zabalkundea izaten zuen honek herritarren artean, ezkutukoa baitzen. Santo Tomas Lizeoa izan zen Donostiako lehen euskarazko eskola.

77. Santo Tomas Lizeoaren sorrera (ORI-006/026)

Santo Tomas Lizeoaren sorreraren historia.

78. Santo Tomas Lizeoan errentan (ORI-006/027)

Santo Tomas Lizeoan gela bat ordaintzen zuen Karmelek errentan, baina Elvira Zipitriaren metodologia erabiltzen jarraitu zuen.

79. Ikastolak eskola parrokiak gisa (ORI-006/029)

Manzanas hil zenean, ikastola ilegalak ixteko beldurrez, kartillak eskatzen hasi ziren. Ikastola txiki hauek legalizatzeko, ordea, eskola parrokiak gisa jarri zituzten, elizak eskubide hori baitzuen.

80. Herriz herri ikastolak iragartzen (ORI-006/030)

70. hamarkadan herriz herri ibili zen Karmele ikastola iragartzen, ikasleen gaitasunak erakusteko, ordurako dena legalizatzen hasiak baitziren.

81. Geroz eta liburu gehiago (ORI-006/031)

Denborarekin geroz eta liburu gehiago erabiltzen hasi ziren hezkuntzan, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz.

82. Euskara batuaren auzia (ORI-006/034)

Euskara batua oso gai mingarria izan zen EAJko kideen artean, batzuk Euskaltzaindiaren arauen alde baitzeuden, eta beste batzuk kontra.

83. Euskara batuko "h" (ORI-006/036)

"H" hizkiaren inguruako auzia handia izan zen. Elvira Zipitria ez zegoen erabiltzearen alde, ezta ikasle zenbaiten gurasoak ere.

84. "h" hizki polemikoa euskaltzaleen artean (ORI-006/038)

H hizkia erabiltzeagatik EAJ barruan kritikatu izan zen Karmele, izan ere, "h" erabiltzen zutenak ETAkoak zirelako zurrumurua zabaldu zen.

85. Jarrai antzerki taldeko kide (ORI-006/040)

Gaizki ikusirik bazegoen ere, Karmele afizioz sartu zen Jarrai antzerki taldean. Maria Dolores Agirreren taldearen kontrara, antzerkigintza modernoagoa egiten saiatzen ziren. Entseguak bodega batean egiten zituzten, Urbietta kalean.

86. 3R motako antzerkia (ORI-006/041)

Elizako egitarauan inoiz ez zen antzerkirik agertzen, baina behin Jarrairen antzerki obra bat 3R gisa jarri zuten. Euskaraz bakarrik egiten zituzten antzerki obrak, gipuzkeraz.

87. Antzerkia poltsikotik ordaindu (ORI-006/042)

Antzerkiaren apainketa, jantziak... eurek ordaintzen zituzten. Donostian igande eguerditan antzezten zuten. Batean Aberri Egunean ere egin zuten.

88. Ez Dok Amairurako sarrerak saltzen (ORI-006/044)

Ikastolan Ez Dok Amairuk antolatutako ekitaldietarako sarrerak saltzen zituen Karmelek. Talde honen hasieran kotrako jarrera zabala zen, modernoegiak zirelakoan.

89. Euskaldunak elkartzeko ibilaldiak (ORI-006/046)

Klandestinitatean lanean aritzen zirenak, eta euskaltzaleak, orokorrean, bildu egiten ziren irteerak egiteko, txoko ezberdinetako euskaldunak elkartzeko.

90. Dantzarako afiziorik ez (ORI-006/047)

Behin Igeldoko dantzara joan zen Karmele, baina ez zitzaion batere gustatu. Nahiago izaten zuen denbora beste modu batean pasa.

91. Garai bateko moda (ORI-006/048)

Motots luzeak, melena luzea... ziren ohikoak.

92. Politika, emakumeek ez ligatzeko arrazoia (ORI-006/049)

Emakumeak politika munduan aritzea ez zegoen ongi ikusia gizonen artean, eta nahiago izaten zituzten politikan ez zebiltzan emakumeak.

93. Moja izatea ohikoa (ORI-006/051)

Erljioa oso sartuta zegoen familietan. Sermoiak gogorrek izaten ziren, eta oso ohikoa zen alabak moja sartzea.

94. Mediku kontuak (ORI-006/052)

Herriko mediku bat izaten zen, Oriokoa Don Joaquín zen. Erditze gehienak etxean izaten ziren ordea.

95. Bataiatzeko ohitura (ORI-006/053)

Umea izane ta berrogei egun pasa arte emakumea ez zen etxetik irteten, eta lehen irtenaldia elizara joateko izaten zen. Bataiatu gabeko umeak Limbora joaten zirela uste zen orduan.

96. Sexu konturik ez (ORI-006/054)

Sexuaz, hilerokoaz, umeen jatorriaz... ez zen hitz egiteko ohiturarik. Gizonekin joateko beldurrez ibiltzen ziren. Familiakoen artean musuak emateko ohiturarik ere ez zen izaten, eta mutilei musu ezkutuan ematen zieten.

97. Gerran Orioko zubia bota (ORI-006/055)

Zubia lehertu zuten gerra hasi zenean, eta eztrandatik ateratako kristalak zauria egin zion hankean Karmeleri. Aginagara joan ziren oinez gauean eta bertan gelditu ziren nazionalak herrian sartu ziren arte. Orduan Oriora itzuli ziren.

98. Maistrak erdaraz, berak euskaraz (ORI-007/003)

Plazako maistra batekin hasi zen, baina erdaraz egiten zien eta beraiek euskaraz, eta haserretu egiten ziren. Ondoren, mojetara joaten hasi zen, eskolatik aparte.

99. Erromeriak txistuarekin (ORI-007/007)

Erromerietan gutxi ibiltzen ziren. Gerra garaian, Urteta auzora joan ziren eta han egon ziren. Urtetan izaten ziren erromeriak gehienbat. Txistua jotzen zuten.

100. Musika bandarekin dantzan (ORI-007/009)

Dantzan egiteko mutilek eskatzen zieten neskei. Ezetz esanez gero, haserretu egiten omen ziren. Musika bandak jotzen zuen plazan, igandeetan.

101. Senarra nola ezagutu zuen (ORI-007/010)

Senarra nola ezagutu zuen kontatzen du; plazan dantza. Elkarrekin paseoan aritzen ziren.

102. Arraunlariak errioan (ORI-007/012)

Arraunean gizonezkoak aritzen ziren. Errioan entrenatzen zuten. Getariak Kontxa irabazi zueneko kontakten du.

103. Getariarre "lapajale" (ORI-007/013)

Getariarrekin ika-mikan aritzen ziren. "Lapajale" deitzen zieten, eta haiek oriotarre "ijito". Zarauztarrak aberatsagoak izaten omen ziren.

104. Gerratik ihesi, Urtetaraino (ORI-007/018)

Gerra garaian zubia bota egin zuten. Etxetik ihesi, Galdagorri kamioiarekin Aginagara, Donostiara eta Oialumera joan ziren. Azkenik, Urteta auzoan pasatu zituzten hainbat hilabete. Bonbak eta hegazkinak entzuten zituzten.

105. Gerra garaian, Urtetako egonaldia (ORI-007/019)

Gerra garaian Urteta auzoan egon zirenean, ez zitzairen soldadurik tokatu. Handik Oriora jaisten ziren erosketak egitera astoarekin. Eliza eta eskola zeuden auzoan. Babarrunak, taloa eta ogia jaten zituzten.

106. Itzuleran, herria suntsituta (ORI-007/020)

Urteta auzotik etxera itzuli ziren, Oriora. Herria suntsituta topatu zuten, bonbardaketengatik. Zubiak suntsituta zeudenez, bateletan ibiltzen ziren.

107. Hildakoak, fusilatuak eta beldurra (ORI-007/021)

Hildakoak eta fusilatuak egon ziren gerratean Orion. Soldaduek alde egin ondoren ere, beldurrez egoten ziren. Gain batean gizonak hil zituztela kontatzen du.

108. Senarra itsasoan (ORI-007/027)

Senarra itsasoan ibiltzen zen. Atunetara joaten zirenean, hilabete pasa egiten zuten itsasoan. Antxoatan edo sardinatan aritzen ziren inguruan. Arrainaren salmenta Getarian egiten zuten. Hamabost bapora inguru egoten ziren.

109. Erditzeak etxean eta ospitalean (ORI-007/028)

Seme-alabak non jaio ziren kontatzen du; batzuk etxean, besteak ospitalean. Etxean Don Jose medikuaren laguntzarekin izan zituen. Modu naturalean erditu zuela dio. Ume handiak izan zituen.

110. Errioan igerian ikasten (ORI-007/032)

Hondartzarako bainujantzia erabiltzen zuten. Errioan ikasi zuen igerian, bere gisa.

111. Trapuak pardel modura (ORI-007/033)

Umeei suabeago hitz egiten zieten. Senarrak eta etxeak laguntzen zioten umeekin. Pardel modura trapua jartzen zieten.

112. Hilekoaren mitoak (ORI-007/035)

Hileko minarentzat ez zuten ezer hartzen. Hilekoarekin hankak ez zirela garbitu behar esaten zien amak.

113. Erditzeak eta haurren bataioak (ORI-008/003)

Amak esan zion bekatua zela umea jaio eta umea elizan sartu gabe burua kalera ateratzea. Haurrak bataiatu ostean, bazkaria egiten zuten etxean. Erditzeak punturik gabe izan ditu; medikuak gehiago ez zuela izango esan zion baina beste bat izan zuten.

114. Sukaldaritza ikasten elizan (ORI-008/005)

Astean pare bat aldiz, elizan pertsona batek sukaldean egiten zuen eta hara joaten ziren sukaldaritza ikastera. Sukalderako afizioa izan du Antoniak eta etxean bazkari asko egin izan dituzte San Nicolas jaietan, gabonetan...

115. Sare-josten ibilitakoa (ORI-008/009)

Sare-josten ibili zen, umeak izan zituen arte. Belardi batean sareak zabaldu eta jostorrazarekin nola josten zituzten azaltzen du. Emakumeek bata besteari erakusten zieten. Sareak tindatu egiten ziren, baina ez daki prozesua zein zen.

116. Aita itsasoan galdu (ORI-008/012)

Bere aita barran galdu zen; beste behin ontzi batek buelta eman eta arrantzaleak topatu zituzten baina larri ibili ziren. Senarra itsasoan galdutakoan, gorpua azaldu bitartean ez zuten ezer jasotzen alargunek; halaxe gertatu zitzaion bere amari. Barra bi aldiz konpondu dute harrezkero.

117. Orduko janzkera eta orrazkerak (ORI-008/016)

Makillatzeko ohiturarik ez du izan. Gogoan du behin Oialumeko jaietara izebarenera zihoazela eta, bidean ezpainak margotu zituztela, erdi ezkutuan. Adineko emakumeek moñoa izaten zuten buruan; amak bere arropak josten zituen. Sekula ez du galtzarik jantzi. Astegunerako arropa bat eta astebururako beste bat izaten zuten. Amak arropak josten zizkien.

118. Sokamuturreko zekorra etxeraino (ORI-008/024)

Jaietan zekor bat jarri zuten, sokamuturra, eta beraien etxe barrura sartu zitzairen. Sokarekin atera zuten.

119. Herriko jaiak eta bestelako ospakizunak (ORI-008/027)

San Pedrotan eta San Nikolasetan izaten ziren jaiak. Estropadak irabazten bazituzten ere jaia egiten zen. Soinua izaten zen. Tarteka herri-kirolak egiten zituzten. Idi-demak egiten zituzten, harria udaletxe parean egoten zen. Anekdotak pare bat kontatzen du bere semeari buruz.

120. Ogia erortzea eta mutilekin dantza egitea, bekatu (ORI-008/034)

Ogia eroriz gero, musu emanda jasotzen zen. Konfesatzera joaten ziren. Mutilekin dantza egitea bekatu zenez, ez zuen egiten. Kongregazioetan ez zen ibili. Batzuek nabarmen uzten zituzten mutilekin dantzan egitearren; mutilak, ordea, ez zituzten zigortzen. Kongregazioetan errezoak eta hitzaldiak izaten zituzten.

121. Ama alargun laguntzarik gabe (ORI-008/042)

Aita galdu zutenean, neska koxkorrak ziren. Gorpua aurkitu ez zutenez, alarguntasunik ez zioten eman. Amak lan bikoitza egin behar izan zuen familia aurrera ateratzeko. Arropa konponketak egiten zituen amak. Ordurako Antoni lanean hasita zegoen.

122. Atlantikoan bale asko ikusten dira (ORI-009/001)

Itsasontziaren zatiak: popa, istriborra ("estiborra"), branka, kubierta, bodega... Atlantikoan bale asko ikusten dira. Balea atunetan ibiltzen denez, hau ikustean itsasontziek badakite non dagoen atuna.

123. Itsasontziaren tamainaren arabera, arrain mota bat edo beste harrapatzen dira (ORI-009/002)

Kanpaina ezberdinetan, itsasontzi mota ezberdinetan ibili izan da. Txikienekin antxoak, sardinak, atunak...; Gran Solen legatza, zapo, merlenka handiak, oilarrak...; Itsasontzi handienetan Terranovara joaten ziren bakailao bila.

124. Itsasontziko lanak eta tresnak (ORI-009/004)

Nola arrantzatzen den: sareak bota, garbitu, sareak altxatu, josi, arraina ekarri, gorde... askotan, gau eta egun lan egiten da. Arrantzarako tresnak: sareak, kordak, amuak, kainaberak, sokak...

125. Arrantzako zortea (ORI-009/005)

Batzuetan ez da ezer arrantzatzen eta bestetan asko. Alturako arrantza ondo ateratzen bada, hilabeteko 100 tonelada batu daitezke. "Gran pesca"-n hiru marea egiten dira.

126. Arrantzaren egoera; portu garrantzitsuenak (ORI-009/007)

Euskal Herriko arrantzaren egoera nolakoa den (1977an). Garai batean, ez zegoen arrantzarako kuotarik. Portu garrantzitsuenak: San Pedro, San Juan, Bilbo, Ondarroa, Bermeo, Orio, Getaria...

127. Arrantzaren zortearen arabera, soldata ezberdina da (ORI-009/008)

Arrantzaren zortearen arabera, soldata ezberdina da. Garai bateko arrantza errezagoa zen, kostaldetik gertu arrantzatzen zelako.

128. "Mari Karmen" itsasontzia (ORI-009/009)

"Mari Karmen" itsasontzian ibilian lan egin zuen eta bera lehorrean zegoela, hondoratu egin zen. Ez zen inor ito.

129. Arrantzatzeiko arrain zailenak eta errezenak (ORI-009/010)

Arrain handiak Atlantikoan arrantzatzen dira: bakailoak, atunak, hegalaburra, marrazoak... Arrantzatzeiko arrain zailenak: balea, marrazoak, atuna... Errezenak: antxoa, sardinak, berdela, txitxarroak...

130. Arraina saltzea: kofradiak (ORI-009/011)

Arrainak non saltzen zituzten: Pasaian, Donostian, Ondarroan, Santanderren, Santoña, Orio... Hartutako arraina kofradiatik pasa behar da beti.

131. Arrantzale 8 urterekin (ORI-009/012)

Arrantzale izatea gustatzen zaio. Garai batean, 8 urterekin hasi eta 70 urtera arte ibiltzen ziren gizonak arrantzan.

132. Behien esnea, ernalketa eta beste (ORI-010/004)

Marmita taparekin ixten zuten, baita trapu bat bueltan lotuta jarri ere. Esnea ateratzen zuten egunero eta txekorrak ere egunean pare bat aldiz atera behar izaten zituzten. Sei behi eta idi pare zituzten, eta asto pare ere bai. Behiak umea egiteko garaian ez dute esnerik ematen, antzutu egiten dira. Udan janari hobea izaten denez, behiek esne gehiago ematen dute. Udan laurogei oilo izanez gero, hirurogeita hamar arrautza jasotzen zituzten, baina neguan dozena bat kostata. Behiak ernaltzeko auzoko edo etxeko txekorrarekin estaltzen ziren, susara zeudenean.

133. Beldarrain baserrian goserik ez (ORI-010/005)

Beldarrainen ez zuten goserik pasatu. Untxirik ez zeukaten etxean, eta behin osabari eskatuta, Eztena baserrira joan eta handik ekarri zuen bat. Ehunka untxi eta oilo izaten zituzten. Urtero zerri bat eta ardi zaharren bat hiltzen zituzten.

134. Animaliei ematen zitzaien tratua (ORI-010/007)

Animaliari berezko tratua eman izan zaiola dio. Behien esnea jaso behar izanez gero, ondo zaindu behar izaten ziren. Idiek berriz, atsedendiak izaten zituzten eta lanerako jartzea zaila izaten zela dio.

135. Beldarrain baserria erre zenekoa (ORI-010/009)

Auzolana asko egiten zuten. Ehun anega gari zeuden etxean, 1946an baserria erre zitzaienean. Idiak eta txekorrak ere erre zitzaizkien. Jende asko bildu zen laguntzera. Lapurretan ere egin zietela kontatzen du.

136. Baserria nola erre zen (ORI-010/011)

Sukaldeko sutako brasa katuak bizkarrean sabaira eraman eta etxeak su hartu zuela uste dute. Etxean nortzuk zeuden kontatzen du. Baserria nola sutu zen gogoan dauka; abereak zelaira atera eta baserrirantz egiten zutela kontatzen du. Jende asko batu zen laguntzera. Baserria erre zenean, aitik eskopeta saldu zuen. Soinean zeukaten arroparekin geratu ziren. Urte gogorak izan zirela dio.

137. Aita adreilu lantegian aritzeagatik, silikosiak hil (ORI-010/012)

Aita adreilu lantegian aritu zen lanean urte askoan, baserria erre ondoren. Lantegian harrapatutako silikosi gaitzarengatik hil zen. Eskolara joan aurretik, aitari ogitartekoa eramatera joaten zen, baita ardoa ekarri ere enkarguak eginez.

138. Michelinen lanean eta obran ere bai (ORI-010/015)

1968an pisua hartu zuen. Michelinen zortzi ordu lan egin ondoren, obran lan egiten zituen beste hamar. Orain bizi dela lasai dio.

139. Umetan kilkerak biltzen (ORI-010/016)

Siestarako planta egin eta sasiz sasi txori bila edo masustak biltzen ibiltzen ziren. Udan kilkerak bildu eta piper potoan sartzen zituzten; belarrarekin zirikatzen zituzten edo ura botatzen zieten, zulotik aterarazteko.

140. Habi bila bai, haiek hartu ez (ORI-010/017)

Habi bila ibiltzen ziren. Zozoarena topatzea erraza izaten dela azaltzen du. Zozoaren ohiturak azaltzen ditu. Galeperra ere topatu izan zuen, arrautzekin. Bakean uzten zituzten txoriak.

141. Txori kantariak likarekin harrapatu eta saldu (ORI-010/018)

Batzuek likarekin harrapatzen zituzten txori kantariak eta saldu.

142. Umetan, esnea eramaten eta idiak uztartzen (ORI-010/019)

Goizetan jaikitzea kostatzen zitzaion. Usurbilgo izeba ona zela dio; Javier jaikitzerako kafesnea eta astoa prest izaten zituela kontatzen du. Zortzi urterako idiak uztartzen bazekien. Anekdotak bat kontatzen du.

143. Baserriko lanak egitearren, izebak ordaina (ORI-010/020)

Gomazko pilota zaharren bat zen jostailu bakarra. Harekin aritzen ziren pilotan. Jolaserako ez zen asti gehiegi izaten. Egur txikitzen aritzen zen. Izeba ona zeukatela dio; lanarengatik beti ordaina ematen ziela dio.

144. Oriotarrak animatzeko kanta (ORI-011/001)

Oriotarrak animatzeko kantua.

145. Egur botatzen Auritzen (ORI-011/005)

Negu batez Auritzen (Nafarroa) aritu zen basotik egurra ateratzen, Orioko zerrategi batentzat. Trontzarekin moztu eta idiekin lorrean eramaten zituzten enborrak. Goizuetarren hizkerari buruzko pasartea.

146. Arbolak botatzeko modua (ORI-011/006)

Arbolak nola botatzen diren kontatzen du. "Zapo-saltoa" zeri esaten zaion azaltzen du.

147. "Zapo-saltoa" zeri esaten zaion basoan (ORI-011/007)

Basoan egurra ateratzerakoan "zapo-saltoa" zeri esaten zaion azaltzen du.

148. Aita eta semea maiteen (ORI-011/009)

Aita berezia zela kontatzen du. Ama eta andrea ere asko maitatu izan dituela dio. Bigarrenik asko maite izan du semea.

149. Apaizen sermoiak herritar pobreei (ORI-011/014)

Erljioak engainatu egin izan dituela dio, herritarrak bekataritzat hartuta. Pasarte bat kontatzen du. Apaizek pulpitutik sermoia nola botatzen zuten kontatzen du.

150. Apaizak pobreei diru-eske (ORI-011/015)

Zubietako eta Usurbilgo apaizei buruz hitz egiten du, dirua lotsagabeki nola eskatzen zuten kontatuz. Aiako Don Hilario erretorearen eta aitaren arteko elkarrizketa kontatzen du.

151. Apaizak nahiago bere herria zerua baino (ORI-011/016)

Elgetako apaiz zahar batekin gertatutako pasarte barregarria kontaktzen du.

152. Apaizen sexu gehiegikeria (ORI-011/017)

Federik ez zeukanari, sarrarazi egiten ziotela dio. Apaizen sexu gehiegikeriaz hitz egiten du.

153. Bikotea eta udare-lapurrraren ipuina (ORI-012/001)

Pasarte barregarria kontaktzen du, bikote baten eta udare-lapurrraren ingurukoa.

154. Baltsean egitea libre (ORI-012/002)

Bere gazte garaian, baltsean aritzea libre zen. Musika bandak igandero jotzen zuen. Aristerratzun ere erromeria izaten zen.

155. Etxea eraikitzeke prozesua (ORI-012/009)

Etxea egiteke prozesua: lursaila aukeratu, erretena egin eta harriz bete, eta hormak egin. Geroko modua, zutabeak eginez eraikitzea izan da.

156. Horma zuzenak nola egin (ORI-012/010)

Baserriak egiterakoan, bazterretan hormak eta barruan egurrezko zutabeak jartzen ziren. Hormak zuzen nola eraikitzen diren azaltzen du. Orduko porlana eskuz egiten zuten, azpilak erabiliz.

157. Teilatuak nola egiten ziren (ORI-012/011)

Baserriko teilatua nola egiten zen kontaktzen du. Teilak ipintzeko ez zuten beren burua inora lotzen.

158. Itsasontziko egunerokoa (ORI-012/014)

Arrantzaleak itsasontzian eguna argitu orduko jaikitzen ziren eta ilundutakoan oheratu. Arraina harrapatuz gero, hozkailuan sartzen zuten. Atunetan aritzeko, arrain bizia erabiltzen zuten, eta haiek zaindu egin behar izaten zituzten.

159. 1961eko denboralea I (ORI-012/015)

Itsasoan eguraldi txarra zegoenean, gaizki pasatzen zuten. 1961eko denboralean pasatutakoa kontaktzen du.

160. 1961eko denboralea II (ORI-012/016)

1961eko denboralean bizitakoa kontaktzen du. Olatu ikaragarriak zeuden itsasoan; hiru bapore elkarrekin zihoazen Bermeora, babesera.

161. Itsaso txarragatik, ia ito (ORI-012/017)

Denborale baten kontakizun gogorra egiten du. Itsasoko bizimodua gogorra dela dio.

162. Itsasontzian, lurrean lotan (ORI-012/021)

Itsasontzian nola lo egiten zuten azaltzen du: lurrean egiten zuten lo, zurikinekin egindako koltxoien gainean. Egunez lehortzen jartzen zituzten koltxoiak.

163. Umetako zereginak eta jolasak (ORI-013/002)

Ahizpa etxean geratzen zen eta bera eskabetxeriarra joaten zen. Ontziak garbitzea bien artean egiten zuten, txandaka. Anaiek ez zeukaten etxean zereginik egin beharrik. Umetako jolasak: poto-potoka, ezkutaketan, etxo-eta-bertan, zintarekin (zapi-jokoa), uztaiarekin, txarpetan (tortoloxak), kaniketan...

164. Umetako panpina eta pilotak (ORI-013/003)

Amandreak oparitutako panpina zeukan. Harekin nola jolasten zuen kontatzen du. Pilotak trapuekin egiten zituzten, barruan kanika jarrita.

165. Dotrina euskaraz ez egitearren, eskolatik ospa (ORI-013/004)

Eskola nazionalera joan zen, besterik ez zegoelako. Neskek maistra eta mutilek maisua izaten zuten. Dotrina euskaraz ez erakustearren maistrarekin izandako tirabira kontatzen du. Harrezkero, ez zen gehiago joan. Partikularretan hasi zen.

166. Orioko eskabetxeriak (ORI-013/005)

Eskolatik ateratakoan, eskabetxeriarra joaten zen. Eskabetxeriak non zeuden, nolakoak ziren eta nolako lana egiten zuten kontatzen du.

167. Eskabetxerako tresnak (ORI-013/006)

Eskabetxerako erabiltzen zituzten tresnak: sarea, trapu zuria eta labana. Emakumeak aritzen ziren lan hartan. Orduko hiru pezeta jasotzen zituzten.

168. Anginentzat eta kukutxeztularentzat sendagaiak (ORI-013/009)

Anginak eta kukutxeztula izan zituen umetan. Limoi-urarekin pasatzen zitzaizkion anginak. Kukutxeztularentzat amak egindako jarabea hartzen zuen.

169. Etxean erabiltzen dituzten sendabelarrak (ORI-013/011)

Pasmo-belarra, mihura, berbena, txanpon-belarra... Nola hartu behar diren azaltzen du.

170. Umetako arropak eta orrazkera (ORI-013/012)

Soinekoa eta abarketak jantzen zituzten. Jaunartze handia egindakoan jantzi zituen lehenengoz zapatak. Ilean trentzak erabiltzen zituen. Hamar urterekin ilea moztu zioten lehenengoz, ileorde bat egiteko.

171. Moilan igerian bainujantzi eta guzti (ORI-013/013)

Ez zuen makilajerik erabiltzen. Hondartzara ez ziren joaten, baina moilara igeri egitera bai. Bainujantzia erabiltzen zuen, aita "bainero" aritzen baitzen Donostian. Igerian ibiltzen ziren.

172. Uretako aparrarekin jolasean (ORI-013/014)

Uretan aparra egoten zen, Tolosako paper-lantegikoa. Harekin jolasean aritzen ziren. Garbitzera garbitokira joaten ziren, hango xaboi pusketak erabiliz.

173. Arropak garbitzera garbitokira (ORI-013/015)

Emakumeak kantari aritzen ziren garbitokian. "Burutakoa" jartzen zuen amak, trapu bat, eta gainean ontzia eramaten zuen arropekin. Balkoian lehortzen ziren arropak.

174. Baporetako sareak zelaietan (ORI-013/016)

Garai bateko Orio nolakoa zen kontaktzen du. Baporetako sareak zelaietan zabaltzen zituzten.

175. Musika banda eta txistulariak plazan (ORI-013/018)

Plazan musika bandak jotzen zuen eta hara joaten zen dantzara. Seietatik bederatziak arte izaten zen. Bandak atsedean hartzen zuenean, txistulariek jotzen zuten, soltean aritzeko. Mariaren alabak kongregazioa utzi egin zuen.

176. Arrandegiko lanak (ORI-013/023)

Koinatuaren familiako arrandegian aritu zen lanean. Ondoren, Usurbilen arrandegia zabaldu zuen anaiarekin. Hogeita bederatzi urte egin zituen han. Eguneroko lanak aipatzen ditu.

177. Arrainaren salerosketa (ORI-013/024)

Pasaian arraina nola erosten zuten kontaktzen du. Hogeitai bano gehiago egoten omen ziren saltzen. Salmenta seietan hasten zen eta hamabietarako bukatzen zen.

178. Aspaldiko Orio nolakoa zen (ORI-014/005)

Bera umea zela, Orio lau etxe ziren. Soro eta baratze asko zeuden orain etxeak dauden lekuan. Hiltegia non zegoen azaltzen du. Etxe zaharrak zeintzuk ziren azaltzen du. Orduko tabernak izendatzen ditu.

179. Tabernan gizonak berriketan, kartetan eta ardoa edaten (ORI-014/006)

Tabernan gizonak egoten ziren, lanetik aterata batez ere. Emakume oso gutxi egoten zen. Ez zuten astirik izaten egunero joateko. Gehienez berriketan eta kartetan ibiltzen ziren. Porroian ateratzen zuten ardoa. Igandetan batzen ziren, larunbatetan lan egiten zuten eta.

180. Biki txikiak jaio eta aurrera atera (ORI-014/008)

Bikiak jaio ziren, oso txikiak. Sutondoan edukitzen zituzten eta aurrera atera ziren.

181. Bigarrenez jaio zenekoa (ORI-014/009)

Traineruak garbitzen ari zirela, jolasean irristatu eta buruan kolpea hartu zuen. Konorterik gabe geratu zen ordu batzuetan. Gero oneratu zen.

182. Hirugarrenez jaio zenekoa (ORI-014/010)

Behin itsasontzia hartu eta ateratzen ari zela, korrontearengatik uretara erori zen. Kateari heldu zion eta mutil batek atera zuen.

183. Terranovako istripuan lankidea hil (ORI-014/011)

Terranovan istripua izan zuen denboraleagatik eta lankide bat hil zen. Berak zortea izan zuen, hurrengo olatualdian itsasontziari heltzea lortu zuelako.

184. Zira gomarekin ondo itxita (ORI-014/012)

Zira eskuturretan eta orkatiletan gomarekin itxita izaten zuten, bero eta lehor mantentzeko.

185. Zira eta gomazko botak itsasorako (ORI-014/014)

Itsasoan zira beti erabili izan dutela dio. Gomazko bota luzeak erabili izan ditu; baxuran motzak. Norberak erosi behar izaten zituen jantziak. Jatorduetatik kanpo jandakoak eta ardoa ere norberak ordaintzen zituen.

186. Portua Saint Pierre eta Mikelune irlan (ORI-014/015)

Lotarako berogailu elektrikoak eramaten zituzten itsasontzietan. Neguan hotz eta udan bero egiten zuen Terranovan. Portua Saint Pierre eta Mikelune irlan zeukaten. Frantziaren menpekoa zen eta presoak hara desterratzen zituzten. Batzuk euskaldunak zirela dio. Arrantzaleek bertakoekin harreman ona egin zuten.

187. Galiziarrekin itsasontzian (ORI-014/016)

Galiziarrekin ikasi zuen "calderada" jaten, arrain egosia patatekin. Hamabost inguru izaten ziren itsasontzian, denak gizonezkoak, eta lautik hiru galiziarrak.

188. Eskola bukatu eta itsasora (ORI-014/018)

Lehenbizi Orion ibili zen eskolan eta gero Zarautzen, Antonianotan. Itsasoan zebiltzan kuadrillako batzuk eta dirua izaten zuten. Berak itsasoan hasteko erabakia hartu zuen. Lehorrean baino bi aldiz gehiago irabazten zuen itsasoan. Etxerako dirua ekartzen zuen zazpi lagunentzat.

189. Aita adreilu lantegiko labeetan lanean (ORI-014/019)

Aitak adreiluak egiten zituen, "La Oriana" lantegian. Lehenbizi harria txikitzen zuten gurpil handi batzuekin; moldeetan masa jarri eta labe handietan egosi egiten zuten. Hoztutakoan prest egoten zen. Harria bertakoa izaten zen. Klase desberdinetako moldeak izaten zituzten.

190. Bizimodua justuan ateratzen zuten (ORI-014/020)

Aitak labeetan lan egiten zuen. Ikatza botatzen aritzen zen. Afaria eramatera joaten zen makina bat aldiz. Aitona eta amonaren soroarekin etxerako nahikoa izaten zuten. Lehen zorretan uzten zuten askok erosketa.

191. Etxeetako atea beti zabalik (ORI-014/021)

Herria txikia zen eta elkar ezagutzen zuten. Etxeko bezala ziren denak. Atea zabalik egoten zen beti. Behin eskale bat sartu zitzairen. Beraien etxeko pasilloan eskale asko batzen zen lotara.

192. Eskaleak etxean (ORI-015/001)

Eskaleek egiten zuten lo euren etxean. Egurraren gainean lo egiten zuten. Etxeak bero-bero egoten ziren, sua erabiltzen zelako. Ijitoak izaten omen ziren asko.

193. Ibaiak ekarritako egurrak, sutarako (ORI-015/002)

Ibaiak ekartzen zituen egurrak, sutarako erabiltzen zituen aitonak. Aitak ikatza ekartzen zuen.

194. Uholdeak sarritan (ORI-015/005)

Uholdeak sarri izaten ziren. Egur asko ekartzen zuen urak.

195. "Corazón Santo" baporean lanean (ORI-015/007)

Orioko "Corazón Santo" izeneko baporean hasi zen lanean. Hegaluzetan bertan aritzen ziren, urrutira joan gabe. Udaberrian astelehenetik larunbatera lan egiten zuten. Patroia, motorista, marinelak eta "txotxua" (mutil gaztea) izaten ziren.

196. Arraina nola ekarri eta saltzen zuten (ORI-015/008)

Arraina kubiartan ekartzen zuten hasieran. Arroa erabiltzen zuten neurritzat. Kofradian txekea hartzen zuten. Seirena, itsasontziko denen artean banatzen zuten.

197. Klima epeldu (ORI-015/010)

Korronteak eta klima aldatu direnez, arrantza zaildu egin dela dio. Garbitokietan izotzezko kandelak egoten zirela dio. Artilezko galtzerdiak janzen zituzten.

198. 1953ko uholdea (ORI-015/011)

1953an uholde handia izan zela dio. Autobusa eraman zuen urak.

199. Terranovara, osabaren bidetik (ORI-015/012)

Itsasoan ekaitz handia tokatuz gero, gelditu egiten ziren. Lau urtez Terranovan ibili zen arrantzan, osabaren bideari jarraituta.

200. Terranovako izotz plakak (ORI-015/013)

Pasaiatik abiatzen ziren Terranovara eta hamar-hamabost egunean iristen ziren. Berrogei metro inguruko iceberga ikusi zuen behin. Izotz plakak ikusiz gero, aldendu egiten ziren.

201. Terranovan nola arrantzatzen zuten (ORI-015/014)

Terranovara iritsi eta berehala arrantzan hasten ziren. Itsasoko neurria, braza, erabiltzen zuten sakonera neurtzeko. Eguna hastetik iluntzera arte egiten zuten lan. Sarearekin arrantzatzen zuten, beruna eta kortxoa ere erabilia.

202. Terranovan, harri askoko lekuetan arrantzan (ORI-015/015)

Terranovan, sondarekin jakiten zuten arraina non zegoen. Apuntatu egiten zuten nondik nora ibiltzen ziren zehazki. Alderdi sakonak eta azalekoak izaten ziren. Harri askoko lekuetan arrantzatu behar izaten zuten sarri.

203. Terranovako baleak eta izurdeak (ORI-015/016)

Udan balea asko ikusten zituzten Terranovan. Nolakoak diren azaltzen du. Izurdeak gozoak direla jateko esaten du. Lehorrean ere jaten zuten.

204. Itsasoan, gorputza ohitu (ORI-015/023)

Itsasoan momentu gogorak pasatu izan ditu. Gorputza ohitu egiten dela dio.

205. Itsasontziko jatorduak (ORI-015/024)

Itsasoan izaten zituzten otorduak aipatzen ditu. Ondo jaten zutela dio. Terranovan bakoitzak bere ontzitik jaten zuen, baina baxuran, gehienetan lapikotik jaten zuten denek.

206. Itsasoan gaixotutakoan, bila etorri edo portura (ORI-015/025)

Itsasontzian norbait gaixotzen bazen, bila etortzen zitzaizkien edo, bestela, portura joaten ziren. Eskumako hankako lotailuak apurtu zituen.

207. Itsasoan ikusitako animalia handiak (ORI-015/026)

Izurdeak jolasean ibiltzen ziren, baina marinelek arpoia sartzen zieten, ahal izanez gero. Animalia handiagoak ere ikusten zituzten.

208. Arrain pilotua nolakoa den (ORI-015/027)

Arrain pilotua nolakoa den kontaktzen du.

209. Arrantzale moduan egindako lanak (ORI-015/028)

Terranovan ibili eta gero, itsasoan jarraitu zuen Orion. Nolako lanak egiten zituen kontaktzen du. Ardura asko izan ditu.

210. Itsasoan dutxak, orain bai, lehen ez (ORI-015/031)

Itsasontzian tarteka dutxatzen zirela dio, baina hasierako urteetan ez. Lotarako berdintsu jarraitzen dute.

211. "Terra" ezizena (ORI-015/032)

Ezizena "Terra" dauka, Terranovan ibili zelako. Izenetik gutxi deitzen omen diote.

212. `Txato´ patroia eta Santi `Ataun´ osabak (ORI-016/002)

Amak hamabi senide zituen. Amonak izandako ezbeharraren berri ematen du. `Txato´ patroia eta Santi `Ataun´ osaba izan ditu.

213. Herriko hiltegia, aitaren familiaren bizileku (ORI-016/003)

Aitak bi anaia zituen. Hiltegia zegoen lekuan bizi ziren. Harakina Salsamendi zen, baita Etxaide ere.

214. Etxea, taberna eta eliza ingurua nolakoak ziren (ORI-016/004)

Taberna zeukaten eraikinaren argazkia erakusten du eta azalpenak ematen ditu.

215. Taberna, baporea eta soroak gobernatzen (ORI-016/005)

Bizi ziren etxearen berri ematen du. Hirugarren solairutik lehenengora jaitsi ziren. 1947an hartu zuten taberna. Baporea eta bi soro ere bazituzten. Sare-konpontzaile ere aritzen zen. Garaiko argazkiak erakusten ditu.

216. Etxearen aurrekaldean iturria (ORI-016/006)

Euren etxearen parean iturria zegoen, abereek edateko, eta sagardoa freskatzeko hantxe jartzen zuten. Ez zuen inork lapurtzen. Argazkia erakusten du. Serenoa pasatzen zen. Aita alkate izan zen 1940an.

217. Aita alkate (ORI-016/007)

Aita alkate izan zen. Orduan, ez zuen jorنالik jasotzen. Itsasoa laga egin behar izan zuen. Garai hartan aitak gidatutako lanak azaltzen ditu. Bizikletei txapa jartzen zieten, udal-zerga ordaindu zutela adierazteko.

218. Uraren depositoa non eta nolakoak (ORI-016/008)

Uraren depositoa non zeuden eta nolakoak ziren azaltzen du. Iturrira joaten jarraitzen zuten, edateko uraren bila.

219. Marea biziak eta uholdeak (ORI-016/009)

Itsasoak gora egiten zuen marea bizietan eta uholdeak izaten ziren euri asko egindakoan. Uholdeak ekarritakoa kentzen ari zela, sugeak hozka egin zion osabari. Argazkia erakusten du.

220. Plaza urez betetzen zenean (ORI-016/010)

Plaza guztia urez betetzen zen uholdeekin. Hango taberna, botika eta dendak zakuekin eta egurrekin babesten zituzten. Udaletxera eta eskolara ezin joanda gelditzen ziren.

221. Zubia bota, eraiki eta berritu (ORI-016/012)

Gerra garaian zubia bota egin zuten. Gogoan du zubiko burdinak plazan utzi zituztela eta kaniketari aritzen zirela haiekin. Zubia eraiki eta geroago berritu egin zuten.

222. Errefuxiatuentzat aterpea (ORI-016/013)

Goserik ez du pasatu, baina bazegoen aterpe moduko bat, errefuxiatuentzat, eta jaten ematen zieten. Guardia Zibilekin izaten zuten harremana ona izaten zen.

223. Gerra garaian, izebari ilea moztu zioten (ORI-016/014)

Bere izeba bati gerra garaian ilea moztu zioten, beste bi emakumerekin batera, abertzaleak izatearren. Kanean ibilarazi zieten.

224. Soinekoa, zapatak eta permanentea (ORI-016/015)

Soinekoarekin ibiltzen ziren, amak egindakoa askotan. Beroki dotorea izan zuen eta nolakoa zen azaltzen du. Ilean permanentea erabiltzen zuten. "Cola caballo" esaten zioten ilea gomarekin batzeari.

225. Eskola partikularreko kontuak (ORI-016/017)

Eskola nazionalean ibili zen eta partikularra ere joaten zen maisu nafarrarekin. Pasarte barregarria kontaktzen du.

226. Erretzabalen urik ez, argia eskas eta basorik ez (ORI-017/003)

Zumaiara ezkondu ziren gurasoak eta ondoren Erretzabalera joan ziren. Amari entzuten zioten Zumaian bizi zela ondo. Erretzabalen ez zen urik eta argia ere eskas. Basorik ere ez zeukaten etxean. Bizilekua oso polita dela dio. Amak hamabi seme-alaba izan zituen eta zortzi bizi izan ziren. Baserrian alaba bat geratu zen.

227. Ura ekartzeko nola moldatzen ziren (ORI-017/005)

Hiru baserri elkarren ondoan ziren eta hirurak urik gabe. Posadera bat bazeukaten baina berehala husten zen. Ura nondik ekartzen zuten kontaktzen du. Ama nola moldatzen ote zen ez du ulertzen, hainbeste ume, aitona itsua eta amona adinekoa izanda. Sua egiteko zotzak biltzen zituen. Etxeko aitona oso ona eta amona gogorra zirela gogoan dauka.

228. Eskabetxeran lanean bederatzi urterekin (ORI-017/006)

Bederatzi urterekin eskabetxean hasi zen lanean, beste ume askorekin batera. Orduko hiru txakur txiki irabazten zituen. Zakua janzen zuten lanerako baina busti-busti eginda ibiltzen ziren.

229. Eskabetxerako lana nolakoa izaten zen (ORI-017/008)

Pezeta bat irabazteko lan asko egin behar izaten zuen. Eskabetxean nola lan egiten zuen azaltzen du. Tina batean ura gatz askorekin jartzen zuten eta hara botatzen zuten antxoa. Ondoren, antxoa zesto txiki batzuetara atera eta emakumeei eramaten zieten. Ordu asko egiten zuten lan. Bi edo hiru eskabetxera zeuden.

230. Obran arotzei laguntzen umetan (ORI-017/009)

Obra batean lanean hasi zen gero, laguntzaile. Han lehorrako lan egiten zuten behintzat. Arotzak enkofratzen aritzen ziren; arotzak ateratako iltzeak bildu, garbitu eta enkarguak egiten aritzen zen. Astea pasata, hamar durokoa lortzen zuen eta poz handia ematen zion. 1941eko kintoa zen anaia eta soldadu eraman zuten.

231. Aita gaixotu eta hil zenekoa (ORI-017/012)

Hamabost urte zituela hil zitzaion aita. Abereekin ibiltzeko sail zailak zirela dio. Aita arotz lanetan aritzen zen obretan. Etxe bat berritzera zihoazela, gaixotu egin zen aita eta hil. Zehatz kontatzen du.

232. Anaia soldadu zazpi urtean (ORI-017/014)

Anaia soldadu eraman zutenean, ez zen gerran ibili baina trintxerak egiten aritu zen. Bi joanaldi egin zituzten, denera ia zazpi urte. Non zebilen ere ez zuten jakiten. Erriberan ari zirela, trena pasatu zen eta anaiak agurtu egin zituen.

233. Obusa etxe ondora (ORI-017/015)

Gerra hasi zela esaten zutela gogoratzen da eta etxe ondoan barrena soldadu asko pasatu zirela. Behin, amarekin sukaldean zeudela, obus bat etxetik gertu bota zuten eta ez zen lehertu. Kontuak entzuten zituzten baina umea zenez, ez dauka askorik gogoan.

234. Aginagako lehengusuak gerra garaian desagertu (ORI-017/016)

Gerra garaian, Aginagako aitaren aldeko lehengusu bat eraman egin zuten eta ez zen berriz agertu. Beste lehengusu batekin ere berdin gertatu zen.

235. Gerra ostean, udaletxera entregatu behar (ORI-017/017)

Gerra ostean, ogia jan nahi eta ezin; beste gauza asko ere bai. Udaletxera hainbeste entregatu behar izaten zuten, izan ala ez izan; artoa, baba, garia eta patata. Eraman egin behar izaten zuten bertaraino.

236. Arrantzaleek arraina debalde (ORI-017/019)

Arrantzaleek asko eman izan dute beti. Baina, batzuetan haiek ere gutxi hartzen zuten eta ez zuten banatzekorik izaten. Orion lantegirik apenas zegoen.

237. Etxean egindako zirekin eta hanka hutsik itsasora (ORI-017/020)

Mutil koxkorrak itsasora joaten ziren lanera. Hamahiru urterekin hasi zen bera; gaua luzea izaten zen, eta bustita eta hotzak egoten ziren. Zirak ez ziren onak; etxean nola egiten zituzten azaltzen du. Hanka hutsik ibiltzen ziren normalean arrantzaleak. Eskalapoietarako ohiturarik ez zegoen Orion; Santoñan ikusten zituzten.

238. Itsasontzian laguntzaile; mutiko gazteei tratu txarra batzuetan (ORI-017/021)

Neguan gutxi joaten ziren itsasora, txitxarrotara noizbait ez bazen. Udaberritik udazkenera bitartean egiten zuten lan. Itsasoan lehenengo lana laguntzaile moduan egin zuen; denek agintzen zioten. Mutil gazteak gaizki tratatzea ohikoa zela dio, lanik gehiena egiten bazuen ere.

239. Antxoa ardoran harrapatzen zuten (ORI-017/023)

Bera hasi zenerako, motorra zeukan "Reina de los ángeles" ontziak. Antxoa ardoran harrapatzen zen, asko. Begiz ikusten zen antxoa. Mutikoa zela, baporearen parean sonda botatzen zuten. Zuritasuna ikusitakoan, sarea botatzen zuten.

240. Batzuetan arrainik harrapatu ezin (ORI-017/024)

Tokatu izan zaio gau batean hamabost aldiz sarea bota eta denetan kale egitea. Arrain asko harrapatzen zuten gehienetan. Madarikazioka aritzen ziren, harrapatu ezean. Elizkoiak izan dira oso Orion.

241. Antxeta eta izurdea gidari (ORI-017/025)

Antxeta eta izurdea gidari onak direla dio, arraina non dagoen jakiteko.

242. Denborale gogorak harrapatu zitueneroa (ORI-017/027)

Behin denborale gogorak harrapatu zituen, gaua zen eta argi bati jarraiki lehorrera heldu ziren. Herrian galdu egin zirela pentsatu zuten. Irurako soldadu desertore batekin topo egin zuten lehorrean eta lagundu egin zien, dirua lortzen.

243. Igerian jakin ez eta itsasoan lanean (ORI-017/028)

Igeri oso gutxi dakiela dio. Bere koinatuak urte askoan lan egin du itsasoan igerian jakin gabe. Erriean ibiltzen ziren beti, ala (ibaiko ontzia) hartuta, eta ez zuten beldurrik izaten. Gaztetan angula asko harrapatzen zuten.

244. Angulak harrapatzen (ORI-018/001)

Gaztetan angulen bila joaten zen, hasieran aitarekin eta gero anai-arebekin. Erreka inguruan gauza ezberdinak biltzen zituzten txanpon batzuen truke.

245. Angulak harrapatzeko ala ontzia (ORI-018/002)

Angulak harrapatzeko ala ontzia nolakoa den. Aginagako jendeak, Orioko hondartzako harea hartzen zuen gero obrak egiteko. Beti ibaian inguruan ibili dira baina ez daki ondo igeri egiten.

246. Angulak harrapatzeko tresnak (ORI-018/003)

Angulak harrapatzeko "balla" nola erabiltzen zuten.

247. Angulak harrapatzeko baimena; kupoak (ORI-018/004)

Gaztea zenean angula asko zegoen eta gero gutxitzen joan zen. Garai batean, ez zegoen kuporik angulak harrapatzeko, nahiz eta baimen bat atera behar zen. Guardia Zibilak kontrolak egiten zituzten.

248. Lapak eta lanpernak (ORI-018/005)

Lapak eta lanpernak hartzen jendea ibiltzen zen, baina haiek beti erreka inguruan ibili dira arrantzan edo egurra garraiatzen. Gaur egun oso kontrolatuta dago. Harroketan arrantzan ibiltzea arriskutsua da.

249. Arrantzako sareak tindatzen (ORI-018/007)

Arrantzako sareak tindatu egiten ziren eta denen artean garraiatzen zituzten. Tindaketa, etxe-azpian egiten ziren. Orion "tintatu" esaten dute baina beste herrietan ezberdina da.

250. Arrantzale izatetik, itsatsontziak egitera (ORI-018/009)

Gaztetan itsasoan lan egin zuen. 24 urte bete baino lehenago utzi zuen baina itsasontziak egiten hasi zen arotz moduan. Aritza erabiltzen zen gehienbat.

251. 1956ko otsaila guztian zehar, elurra (ORI-018/010)

Lasartetik Oriora lanera bizikletaz joaten zen. Batzuetan, bustita ere itzultzen zen etxera. 1956an, otsaila guztian zehar elurra eta izotza egin zuen.

252. Arrandegia zabaldu zuten; bisigua, angulak... (ORI-018/012)

Luzuriagako fabrika lan egin zuen bost bat urtez eta gero arrandegi bat zabaldu zuten etxe azpian. Garai batean bisigu asko zegoen. Angulekin berdina gertatzen zen.

253. Lizargarate baserria (ORI-018/013)

Lizargarate baserrian inguruko baserri txiroena zen. Erromeriak egiten zituzten bertan.

254. Irabazitako dirua gastatzeko zen (ORI-018/014)

Gaur egungo gazteek ez dute dirua garai batean bezala estimatzen. Pobreak ziren eta irabazitako dirua gastatzeko zen. Aurreztea zaila zen.

255. Umetan gutxirekin bizi ziren (ORI-018/016)

Umea zenean, askoz ere gauza gutxiagorekin bizi ziren. Arigirik ez, dirurik ez, urik ez...

256. Maistraren makilkadak, zigorrak... (ORI-018/017)

Irakurtzen nola ikasi zuen. Ez zaio irakurtzea asko gustatzen. Maistra berarekin ez zen gogorra baina beste batzuekin bai. Zigorrak.

257. Soldadutzan lehen aldiz gaztelaniaz hitz egiten (ORI-018/018)

Soldadutzan hasi zen gaztelaniaz hitz egiten zerbait. Ordura arte inoiz ez zuen gaztelaniaz hitz egin. Burgosen egon zen. Hogeita bi urte zituen eta gaztelaniaz ez jakitearen konplexu handia zuen.

258. Euskara debekatua zegoen egoerak ez ditu ezagutu (ORI-018/019)

Soldadutzan, Burgosen, %60-a gutxienez euskaldunak ziren eta gaztelaniaz ez zekitenak. Bizitza guztia euskaraz bizi izan du Patxik. Euskara debekatua zegoen egoerak ez ditu ezagutu.

259. Kanpotik Lasartera lanera joandakoak, beti gaztelaniaz (ORI-018/020)

Lasarten, garai batean arrandegiko bezero gehienekin gaztelaniaz egiten zuten. Gaur egun, euskara gehiago entzuten da. Kanpotik lanera Lasartera joandakoek ez zuten euskaraz ikasten, baina haien ondorengoek bai.

260. Etorकिन boom-aren ondorioz, euskara galdu zen (ORI-018/021)

Lasartera bizitzera joan zirenean hasi ziren etorkinak heltzen herrira eta etxebizitzak eraikitzen. Apopiloak. Etorकिनak edozein lekutan lan egiten zuten eta gainera baratzeak zituzten. Diru asko irabazi zuten eta oso gutxi gastatzen zutenez, etxeak erosten hasi ziren. Orduan galdu zen euskara Lasarten. Gaur egun euskara askoz gehiago entzuten da.

261. Etorकिनен ondorengoak euskaldunak dira (ORI-018/022)

Etorकिनен seme-alabek lan handia egin dute euskaraz ikasteko eta haien ondorengoak euskaldunak izateko.

262. Tomatea eta tipula gordinik jateko ohituraren jatorria (ORI-018/024)

Boom industrialaren garaian kanpotik lanera joandakoek sartu zuten tomatea eta tipula gordinik jateko ohitura. Urte askotan Lasarten lan egindakoen haien herrira bueltatu dira.

263. Udan, kanpotarrak herrira joaten ziren (ORI-018/025)

Udan, kanpotarrak herrira joaten ziren.

264. Arrauna eta estropadak; afizioa Orion (ORI-018/027)

Garai batean, herriko arraun taldekoak herrikoak izan behar ziren. Gaur egun dena nahasita dago. Oriotarrak estropada kontuetan oso itxiak izan dira.

265. Oriotarren afizioa, estropadak (ORI-018/028)

Igeldotik ikusten ditu estropadak. Atentzioa eman zion ondoan zegoen talde baten erreakzioak, Oriok ez zuelako irabazi behar.

266. Garai bateko arraunlarien entrenamenduak (ORI-018/030)

Garai batean, arraunlariak estropadetarako aurreko hilabeteetan entrenatzen zuten. Gaur egun, urte osoan entrenatzen dute eta elikadura asko kontrolatzen dute. Ofizio gogorra da.

267. Oriok irabazten zuenean, kanpaiek jotzen zuten (ORI-018/031)

Gaztetan, estropadak zirenean, telefonoz deitzen zuten herriko lokutoriora emaitzaz berri egiteko eta herri guztiak jakiten zuen. Kanpai-bueltak jotzen ziren. Apaiza Hondarribikoa zen eta hark ez zuen nahi izaten kanpai-buelta jotzea. Gaur egun, estropadak ikustera joaten da.

268. Garai bateko Orio eta Getariaren arteko pikea (ORI-018/032)

Arrantzan lanean ibili zenean, arrainaren salmenta Getarian eta Donostian egiten zen. Orio eta Getariaren arteko pikea, estropadetatik sortutakoa da.

269. Baleei buruzko bertsozik ez; pikeak herrien artean (ORI-018/034)

1901ean Orion sartu zen azkenengo balea. Zarautzeko bertso-saio batean, baleei buruzko bertsozik ez botatzeko eskatu zieten bertsolariari. Liskarrak Zarautz, Orio eta Getariaren artean baleei buruz.

270. Bekatua, emakumeak bertsoan ibiltzea (ORI-019/001)

Batista Gazteluk kontatzen zuen, arreba zela hiru anai-arrebetatik bertsolari onena. Bekatua zen emakume bat plazara bertsoan ateratzea. Mikela Ignazia Gaztelu.

271. Bertsolarien fama txarra (ORI-019/002)

Dionixi, bere arrebak, bazuen bertsolari sena baina ez zion inoiz bertsoan entzun. Bertsolari izateak fama txarra zuen: alperrak, mozkorrak, festazaleak...

272. Bertsolarietatik ezin zen bizi, baina poz handia eman dio (ORI-019/003)

Bertsolarietatik ezin zen bizi baina bertsoan lortzen zuten diru gutxi hori oso estimatua zen. Bertsolaritza asko maite du eta oroitzapen onak ditu.

273. Bertsoak errespetuz eta umoretik (ORI-019/004)

Buruan bada leiho moduko bat, zabaltzen denean bertsoa errez etortzen zaiola. Bertsoak errespetuz egin behar direla uste du, nahiz eta ziria sartu haien artean.

274. Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio (ORI-019/005)

Andoni Egaña. Maialen Lujanbio.

275. 2014ko Bertso Txapelketa; Beñat Gaztelumendi (ORI-019/006)

2014ko Bertso Txapelketari buruz. Ikaragarri gozatu zuen. Beñat Gaztelumenduri buruz.

276. Bertsolarietako zaletasuna nondik (ORI-019/007)

Etxean ez zuten bertsoetarako joerarik, baina bere osaba bat bertsolaria zen. Umetatik zaletasun handia izan du Patxik. Bertso saioak ikustera joaten zen: Txirrita, Uztapide, Lasarte...

277. Bertsoa beti du buruan (ORI-019/008)

Garai batean, bertsoak entzutera joatea zailagoa zen. Bere gurasoentzat fama txarra zuten bertsolariak. Bertsoa beti buruan.

278. Gaztetatik bertsotan (ORI-019/009)

Gaztetan lagunekin bertsotan egiten zuten eta errondak pagatzen zituzten. Arrantzale ibili zenean ere bertsotan aritzen zen. Plazetan ez.

279. Lehenengo aldiz plazan bertsotan (ORI-019/010)

Patxi ez zen plazeta ibiltzen baina bertsolari berrien txapelketa baten parte hartu zuen. Behin Joxe Lizaso eta Joxe Agirre bere bila joan ziren, hurrengo egunean Berastegiko plazara joateko.

280. Berandu hasi zen plazan bertsotan (ORI-019/011)

Igandetan meza eta gero, bertso-paperak banatzen zituzten batzuek. Patxik erosi izan ditu, baina gutxi. Hogeitabederatzi urterekin hasi zen plazan bertsotan.

281. Festetako bertso-txapelketan irabazle (ORI-019/012)

1957an, festetako bertso-txapelketa irabazi zuen. Epaileak. 500 pezetako saria irabazi zuen. Geroztik ez du beste txapelketarik irabazi.

282. Loiolako herri-irratiko bertso-txapelketak (ORI-019/013)

Loiola herri-irratia antolatutako bertso-txapelketetan ibili da. Entzuleek eman zituzten botoak. Behin, Joxe Luis Gorrotxategirekin izandako finalean gertatutakoa kontatzen du.

283. Gaur egun bertsolariak askoz ere finagoak dira (ORI-019/014)

Bertsotan hasi zenean, herri ezberdinetara joateko garraiorik ez zuten. Bertsolari izatea gauza oso handia ze beraientzat. Gaur egun, bertsolaria egin egiten da. Garai batean pentsatu gabe botatzen zuten bertsoa. Gaur egun ordea, oso ondo daude prestatutak bertsoaren erantzuna egokiena izateko.

284. Joxe Agirre bertsolaria (ORI-019/015)

Joxe Agirre bertsolariari buruz. Bertsolarien egun txarrak. Garai batean bertsoa pentsatu gabe botatzen ziren eta jende azkar hasten zen marmarka.

285. Bertsolarien blokeoak eta urduritasunak (ORI-019/016)

Gaur egungo bertsolariek, erantzunak oso ongi pentsatzen dtuzte eta beharrezko denbora hartzen dute. Arozena bertsolarekin izandako saio bati buruz hitz egiten du. Bertsolarien urduritasuna, tentsioa, blokeoa....

286. Saio on bat egitearen asebetetzea (ORI-019/017)

Bertso-saioa ondo ateratzen denean, asebetetzea oso handia da. Patxi oraindik oholtzara igotzen da. Festa garaietan, leku askotatik deitzen dituzte bertsolariak.

287. Hainbat bertso-saio egun berean (ORI-019/018)

Batzuetan bertsolariek saio ezberdinak dituzte egun berdinean, herri ezberdinetan.

288. Joxe Lizasoren eta Arozamenaren autoetan joaten ziren bertso-saioetara (ORI-019/019)

Garai batean bertso-saioetara herri ezberdinetara nola heltzen ziren kotxerik gabe. Bideak txarrak ziren. Joxe Lizasok autoa erosi zuenean, errazago egin zitzaien saioetara heltzea. Arozamenarekin ere joaten zen batzuetan.

289. Peio Errota astoan joaten zen (ORI-019/021)

Peio Errota astoan joaten zen Asteasutik herri ezberdinetako plazetara; Oriora ere. Pasadizo bat kontaktzen du.

290. Peio Errotak Azpeitian izandako liskarra (ORI-019/022)

Peio Errotak Azpeitian izandako saio batean izandako liskarra.

291. Inbidiak etz gorabeherak bertsolarien artean (ORI-019/023)

Bertsolari guztiek ez dute harreman ona haien artean. Inbidiak egon dira.

292. Garaiko bertsolariak, baldarrak baina onak (ORI-019/024)

Garai bateko bertsolariak baldarrak baina onak izan dira. Bertsolarien arteko pikeak.

293. Garai bateko bertsolariak (ORI-019/025)

Plazan bertsoan hasi zeneko bertsolariak: Lasarte, Basarri, Uztapide, Lizaso, Joxe Agirre, Zepai, Txapel, Mitxelena, Txomin, Azpillaga... Bizkaitarrak: Lopategi, Ugartegi, Enbeitatarrak. Iparraldean: Xalbador, Martin, Mendiburu, Laka... Beste batzuk aipatzen ditu ere: Lazkao Txiki, Patxi Iraola, Goiburu...

294. Bertsolarien kuadrilak (ORI-019/026)

Garai batean, askotan bertsolariak binaka joaten ziren saioetara. Gerora hasi ziren gehiago biltzen.

295. Bertsolaritzan, gai-libreak nahiago (ORI-019/027)

Plazetan gai-libreak izaten ziren. Patxik nahiago du bertsoan gai-librean egin. Gaur egungo bertsolaritzak beste bide bat hartu du. Bertsoan gai librean egiteko sekretua, herriko gauzetaz enteratzea zen.

296. Gai librean bertsoak botatzeko zailtasunak (ORI-019/028)

Behin, oso urduri zegoen bertsolari batekin aritzea tokatu zitzaion. Gai librean aritu behar ziren, ez zegoen ohituta eta oso gaizki pasatu zuen lagunak.

297. Gaur egungo bertsolariak oso onak dira (ORI-019/029)

Garai batean bertsoen erantzunak oso azkar ematen ziren. Gaur egun ezberdina da eta askoz ere landuagoak daude. Patxiri beldurra ematen dio gaur eguneko bertsolari gazteekin aritzea. Joxe Agirrek askotan esaten zion bertsolari gazteekin aritzea beldurra ematen ziola.

298. Bertsolari gazteekin bertsoan aritzeko lotsa (ORI-019/030)

Gaur eguneko bertsolariekin aritzea lotsa ematen dio. Bertsoan aritzeko era ezberdina da eta lekuz kanpo sentitzen da. Behin, gazteekin saio bat egiteko proposatu zioten eta aurreko egunean, komunean orduak pasa zituen urduritasuna zela eta.

299. Aia eta Orioko bertso-eskola (ORI-019/031)

Bertso-eskolara joaten da astero, oso gustora. Bertsolaritza maite du.

300. Basarriekin Madrilen bertsoan (ORI-019/032)

Basarriekin Madrilen bertsoan egon zenekoa. Egun haietan egindakoak kontatzen ditu. Aranjuez-ko orduko alkatea Beasainekoa zen.

301. Joxe Mari Iriondo, Julen Lekuona eta "Txapel" (ORI-020/001)

Loiola Irratiko lehiaketetan, Joxe Mari Iriondo ibiltzen zen antolakuntzan. Julen Lekuona hantxe ezagutu zuen. "Txapel" bertsolariari gidari izaten zuten. "Txapel"ekin ez da bertsoan ibili baina tertulian bai.

302. Loiola Irratiko bertso lehiaketetako finalak tabernan (ORI-020/003)

Loiola Irratiko lehiaketetako finaletako bat Lizasoren tabernan jokatu zuten. Dena jendez bete-bete eginda zegoela dauka gogoan. Batean, finala Gorrotxategirekin jokatu zuen eta, bestean, Azpillagarekin.

303. Loiola Irratiko bertso txapelketak (ORI-020/004)

Finala iritsi arte, Loiolatik kantatzen zuten Herri Irratian. Nolakoa zen kontatzen du. Jendeak irratitik entzuten zituen bertsoak eta botazioa egiten zuten. Gero, zozketaren bat ere egiten zen. 1962-1967 urte bitarte inguruetan egiten zen.

304. Bertsolaritza frankismoan I: debekuak (ORI-020/005)

Patxi bertsoan hasi zenean, garai txarra zen. Bertsoan egin behar zuten egunean, goizez albisteak entzuten zituzten, atxiloketak eta kontuak izan ziren jakiteko. Batzuetan telefonoz deitzera ez ziren ausartzen, entzungo zituztelakoan. Bertsolariak asko kontrolatzen zituzten.

305. Lazkao Txiki eta guardia zibila (ORI-020/006)

Lazkao Txikiri Getariako bidean guardia zibilaren kontrolean gertatutakoa kontatzen du.

306. Bertsolaritza frankismoan II: atxiloketak (ORI-020/007)

Azpillaga eta Lopategi zigortu zituzten, eta atxilotu ere bai, politika kontuak kantatzearen. Joxe Agirre eta Lizaso espetxera eraman zituzten.

307. Bertsolaritza frankismoan III: salaketak (ORI-020/008)

Zentsuraren kontua lasaitzen berandu samar hasi zela dio. Mattinekin bertsotan egin zuen batean, bazkalostean Francoren kontra hasi zirenean, gizon batek kargu hartu zien; ikaratu egin zen Patxi. Manuel Lasartek ez zuen politikaz hitz egin nahi izaten eta gomendioak ematen zizkien.

308. Bertsolaritza frankismoan IV: guardia zibila (ORI-020/009)

Bertso saioak hastear zirela, batzuetan bertan behera uzten zituen guardia zibilak. Arraten (Eibar) behin, bertso saio batean 25 guardia zibil egon ziren ikuskizuna kontrolatzen eta gero bazkarian, guardiaren buruetako batek beraiekin bazkaldu zuen.

309. Bertsolaritza frankismoan V: kontrola eta espetxea (ORI-020/010)

1949an Orioko Kukuarri mendian, guardia zibilarekin gertatutakoa kontatzen du: gurutze berriaren inaugurazioan bertsotan egin behar zuelako joan zen eta 49 guardia uniformatu agertu ziren; ez zen gozoa izaten hala kantatzea. Oso gogorra zela dio. Txomin Garmendia kartzelan egon zen bertso batzuk argitaratzeagatik eta Arantzazuko fraideen laguntza izan zuen.

310. Bertso politizatuak ez frankismoan (ORI-020/011)

Jendea amorratzen egoten zen gertaera politikoei buruzko bertsoak entzuteko, baina beti egoten zen tartean salatu zezakeenen bat.

311. Saio asko urtean, saio batzuk urtetan (ORI-020/013)

Garai batean ehun bat saio egiten zituen urtean. Batzuetan ez zen gustura geratzen eta gero tripako minak izaten zituen. Behin Amurizarekin gaiaz izan zuen hizketaldia kontatzen du. Herri batzuetara hogeita hamar urtez joan izan da; Donostiara Karmen Egunean, esaterako. Urrietara urtean hiru bat aldiz joan da, hogeita hamar urte inguruan.

312. Herri batzuetan urtero-urtero bertsotan (ORI-020/014)

Zerainera ere urte askoan joan izan da, Joxe Agirrerekin batera. Hamaiketakoa egiten zuten, mezetan kantatu eta gero herriko jendearekin bazkaltzera joaten ziren. Joxe Agirre hil ondoren, Gaztelumendirekin joan zen. Lasarten bertan ere asko ibili izan da.

313. Bertsotan bazkari truke (ORI-020/016)

Inoiz bazkariaren truke abestu izan du, hala eskatuta, eta gustura. Berari ez zaio askorik gertatu baina kontatzen du gertatzen dela bertso saioa egin eta xentimorik ere ez jasotzea.

314. Saioko bostehun pezeta (ORI-020/018)

Bera bertsotan hasi zen garaian, bazkari ederra eta bostehun pezeta inguru jasotzen zituen saioko, 1960 inguruan. Joxe Agirrek kontatuta daki, behin Uztapiderekin batera bertsotan aritu ostean, Joxek bostehun pezeta etxera eramane eta amak nolako poza hartu zuen.

315. Lehengo eta oraingo soldatak bertsolarientzat (ORI-020/019)

Bere etxean zorrak zituzten eta saio batean arituta bostehun pezetakoa etxera eramatea asko zela dio. Langile normalaren asteko soldata hirurogei duro inguru izaten zen. Ez du uste bertsolariek orain lehen baino askoz gehiago irabazten dutenik; legez egiten dituzte ordainketak eta azkenerako herena galtzen da, bateko eta besteko. Lehen dirua egunean bertan jasotzen zuten, orain hiru hilabeteren barruan.

316. Zumaian Santa Ageda eskean (ORI-020/021)

Santa Ageda eskean batetik eta bestetik deituta ibili izan da. Zumaian hogeita lau bat urtean aritu izan da; hango bizipenak kontatzen ditu. Zumaiaiko olagarro-zopa oso gozoa dela dio.

317. 1980ko bertsolari txapelketa nolatan antolatu zuten (ORI-020/023)

1980ko txapelketa egin zutenean, aurretik hamabi urtez egin gabe zeuden. Bilerak antolatu zituzten eta ezetzean zeuden, baina batzuen gogoak bultzatuta, aukera jarri zuten nahi zuenak libre joateko. Abel Muniategiren hitzak aipatzen ditu.

318. 1980ko bertsolari txapelketaren garrantzia (ORI-020/024)

1980ko txapelketako finalean kantatu zutenak izendatzen ditu. Txapelketa hura egin izanak daukan balioa aipatzen du. Txapelketa antolatzen ibiltzen zirenak aipatzen ditu; eztabaida handiak izan zituzten. Gazteek oso ondo lan egiten dutela azaltzen du.

319. Eskolarteko txapelketetan aldaketak (ORI-020/025)

Txapelketak bertso-eskolak ahalbidetu eta gazteak hauspotu egiten dituela azaltzen du. Eskolarteko txapelketan egin diren aldaketei buruz hitz egiten du.

320. Parranda giroa bertsotan (ORI-020/028)

Bertsolaritza taberna zuloatik atera zuen eta garrantzia handia eman zion, herriari hori adieraziz. Parranda eginez gero, hurrengo egunean inorako ez dela izaten kontatzen du. Bertsotan aritzean, erre egiten zuen eta edan ere bai pare bat kopa, eta gorputzaldi txarra eragiten duela azaltzen du.

321. Basarrik aldaketak bertsolaritzara (ORI-020/029)

Bertsolaritzaren jatorria zein izan daitekeen azaltzen du; taberna giroan desafioka arituz. Elkarren trapu zaharrak ateratzearen ohitura Basarrik kendu zuen. Bertsotan esandako ordurako joan, bertsotan egin eta etxera joaten zen. "Jendea bertso gose pixka batekin utzi behar da" esaten zuela dio.

322. Basarri bertsolariari buruz I (ORI-021/004)

Basarri bertsolariari buruzko iritzia. Garai batean "bertsolari jainkotzat" zeukaten. Bertsolarien fama txarrari kontra egin zion Basarrik. Bertsolari bezala ere ona dela dio. Egunkarian baserritarren kontuak idazten zituen.

323. Basarriri buruz II (ORI-021/005)

Basarri bertsolariak bazekien bertsozalea gose pixka batekin uzten. Inoiz ez zuten kartzelara eraman, nahiz eta ez zen isiltzen, gerraosteko urte zailetan. Gazteentzat ere eredia izan zen.

324. Basarriri buruz III: hiru anekdota (ORI-021/006)

Karakter handikoa zen Basarri bertsolaria. Haren biografia. Eskolarako gogorik ez zuela, eta fraidea amari joan zitzaion esanez kanturako zuela afizioa. Gaztelu bertsolariarekin izan zuen harremana. Gaur egun bertsolari batzuk aipatzen ditu. Manuel Lasartek Basarriri buruz kontatutako anekdota.

325. Basarriri buruz IV: izan zuten harremana (ORI-021/007)

Batzuek ez zuten famatzen Basarri bertsolaria. Ertzaina izan zen gerra garaian, eta horregatik akaso. Bera askoz gazteagoa zen, eta oso gutxi kantatu zuen Basarrirekin. Madrilera joan ziren behin elkarrekin, sanisidrotan.

326. Manuel Lasarte bertsolari buruz I (ORI-021/009)

Manuel Lasarte bertsolariarekin dezente ibilia da bertsotan. Gorabeherak izan arren, beti ondo konpondu ziren. Jenio bizikoak ei dira biak. Oso bertsolari ona zela dio, handia, batere eskolarik ez izan arren.

327. Lasarte bertsolariari buruz II (ORI-021/010)

Manuel Lasarte bertsolariak kantatzeari noiz utzi zion. Kotxerik ez zeukan, eta beti txofer bila ibili behar eta osasuna ere ez zuen lagun izan. Utzi zuenean ere toki askotatik deitzen zioten. Lasarteren bertsokera famatzen du.

328. Uztapide bertsolariari buruz I (ORI-021/013)

Uztapide bertsolariari buruz dio oso konpletoa zela, argia, jatorra eta lasaia, hamaika parranda eginagatik hitzordura faltatzen ez zuena. Ganbaran liburu mordoa zituela zioen Manuel Lasartek. Oso zuzena zela dio, egiazalea.

329. Uztapideri buruz II (ORI-021/014)

Ikazkin ere ibilia izan arren, hirian ere moldatzen zen. Denak ezagunak zituen, lagunak, eta etxerako presarik ez zuen izaten sekula; Basarrik, ordea, bai. Anekdota bat kontatzen du: Uztapide gaixo zegoela, diru pixka batekin joan omen zitzaizkion lagunak, baina berak hartu ez. "Oraindik lanik egin gabe ez dut sekula kobratu".

330. Lazkao Txiki bertsolariari buruz I (ORI-021/016)

Lazkao Txiki bertsolaria herriak asko maite zuela dio, "artista amorratua" zela. Ipuinak esaten ere izugarria zen, eta bertsotan asmatzen ez zuenean jendea barrez jartzen zuen. Grazia handikoa zen, baina bertsolari moduan ere apartekoa. Gelditu gabe ibiltzen zen hara eta hona, bertsotan. Loinaz tabernan harrapatzen zuten, telefonoz deituta.

331. Lazkao Txikiri buruz II (ORI-021/017)

Lazkao Txiki bertsolaria erbiñudea baino biziagoa zela dio. Umorean maisu baina polbora bezalakoa errietan ere, norbait begitan hartuz gero. Ganadu kontuengatik izan zuen eztabaida bat du gogoan: bi metroko gizona dardarka utzi ei zuen.

332. Lazkao Txikiri buruz III (ORI-021/018)

Toki guztietan zen ezaguna eta maitatua izan zen Lazkao Txiki. Oso azkarra zen izatez, eta fraidetan zerbait ikasia ere bai; irakurri ere egingo zuen. Saio asko egiten zituen, eta oso famatua zen bertsolari gisa.

333. Lazkao Txikiri buruz IV (ORI-021/019)

Behin Donostian saio bat zeukaten, eta Lazkao Txiki ez zen agertu: eguna gaizki apuntatuta zeukan agendan, eta biharamunean agertu ei zen.

334. Lazkao Txikiri buruz V (ORI-021/020)

Danaona jatetxean bazkaria izan zutenekoa kontatzen du, Lazkao Txiki eta dozena bat lagunekin. Biharamunean ebakuntza zuen. Lasai egoteko esan zion berak, ondo aterako zela. Baina ez zen hala izan, eta hitz egin ezinik geratu zen. Eskua estutzen zion, Poliklinikara bisitan joaten zitzaionean.

335. Lazkao Txikiri buruz VI (ORI-021/021)

Lazkao Txiki bertsolari ona zela dio, edozeinekin ondo moldatzen zena. Beti bazuen ziria. Txalo asko jotzen zioten. Txikia izanik, grazia egiten zuen. Lazkao Txiki eta Mattin oholtaza gainean jarrita, jendea barrez hasten zen bertso beharrik gabe. Ipuinak esateko ere grazia berezia zuen. 66 urterekin hil zen.

336. Xalbador bertsolariari buruz I (ORI-021/023)

Xalbador bertsolariarekin gutzi ibilia da bera. Bertsolari ikaragarria zela dio, oso serioa baina handia. Hegoaldekoa izan balitz, txapel batzuk irabaziko zituela uste du. Mattin eta biak oso desberdinak ziren izakeraz zein bertsokeraz. Serioa zen Xalbador, oso sakona. Mattin umoretsua eta irri gozokoa.

337. Xalbadorri buruz II (ORI-021/024)

Garai haietan hegoaldean zailtasun gehiago ei zuten iparraldeko euskara ulertzeko. Horregatik, Xalbadorren bertsoak ezin behar beste estimatu, baina bertsolari handia zela dio.

338. Joxe Agirre bertsolariari buruz I (ORI-021/026)

Joxe Agirre bertsolaria lagun handia zuen. Bertsolaritzak elkartu zituen: saio dezente egin zituzten elkarrekin. Herri bertsolaria zela dio, ateraldi ederretakoa, azkarra. Baserritik plazara joana, harrobian lanean ibilia, bertsoan hasi eta ez zen geratu. Hil aurreko urtean 60 plaza baino gehiago egin zituen, bere 80 urteekin. Oso estimatua zen plazatan. Bertsolari gazteekin ere ederki moldatzen zen, nahiz eta hiztegi aldetik motz geratzeko sentrazioa izan haien aldean.

339. Joxe Agirrerri buruz II (ORI-021/027)

Joxe Agirrerri bertsolariakin non ibili zen kantuan aipatzen du. Txalo asko jotzen zioten Agirrerri, gaztez inguratuta kantatu arren. Baserriko martxari eutsi behar zion, behiak gobernatu, eta beti presaka ibiltzen zen; ez zen parrandan geratzen. Kotxeak askatasuna eman zion. Baserria nola atera zuen aurrera.

340. Joxe Agirrerri buruz III (ORI-021/028)

Ez zen txapelketako gizona. Herri bertsolaria zen. Hil aurretik 60tik gora plaza egin zituen Joxe Agirre bertsolariak. Txomin Garmendia eta biak baserriko oilasko errea jatera gonbidatu zituen behin. Oso pertsona ona zen, irekia eta oso maitea. Etxekoa zuten toki askotan.

341. Autorik gabeko bertsolariak (ORI-022/002)

Autorik ez zutenez, Txomin Garmendia eta Patxi jendearen laguntzaz lortutako garraio bidez moldatzen ziren bertso saioetara joateko.

342. Xabier Amurizak ekarritako bertsolaritza (ORI-022/004)

80. hamarkada inguruan ezagutu zuen Patxik Amuriza. Maila handiko bertsolaria zela antzeman zuen Patxik hura bertsoan entzundakoan.

343. Amurizaren lehen txapela (ORI-022/005)

Oso bertsolaritza landua zuen zuen Amurizak Patxiren iritziz, errima eta hiztegi aberatsak.

344. Amuriza, ona plazan eta oholtzan (ORI-022/006)

Bi Txapelketa Nagusi irabazi zituen arren, plazan ere mila handiko bertsolaria zen Patxirentzat.

345. Amuriza, lehen ikasketadun bertsolaria (ORI-022/007)

Amuriza ikasketadun gizona zela berehala konturatu zen Patxi, hiztegi mailan oso ezberdina baitzen bere bertsolaritza.

346. Gaurko eta lehengo bertsolaritza (ORI-022/009)

Euskara mailan ezberdintasun handia ikusten du Patxik gaur egungo eta bere garaiko bertsolaritzan.

347. Amurizak bertsolaritza berri bat (ORI-022/010)

Amurizarekin bertolaritza berri bat etorri zela kontatzen du Patxik.

348. Imanol Lazkanorekin puntutan (ORI-022/012)

Imanol Lazkanoren bertsoak goraiatzen ditu Patxik. Harekin primeran moldatzen zen puntutan.

349. Gosetuta bertso hobeak (ORI-022/014)

Jan ostean ez omen da jan gabe bezain ongi moldatzen bertsoan.

350. Bertsotan erretzeko ohitura (ORI-022/015)

Manuel Lasarte bezala, beste hamaika bertsolarik erretzen zuten bertsotan ari ziren bitartean, urduritasuna kentzeko-edo.

351. Azpillaga bertsolaria (ORI-023/001)

Jon Azpillaga bertsolariari buruz ari zaigu Patxi pasarte honetan. Francoren garaian Guardia Zibila atzetik izan zuen honek.

352. Mikrofonorik gabe bertsotan (ORI-023/002)

Garai bateko bertsolarien ezaugarrietako bat zen euren ahotsa, mikrofonorik gabe bertsotan aritzera ohituta baitzeuden. Zehazki Azpillaga bertsolariaz jarduten du Patxik pasarte honetan.

353. Azpillaga: bertsolari leiala (ORI-023/003)

Edozein egoeratarra moldatzen zen bertsolaria zen Azpillaga.

354. Txibatoek bertsolariak salatzen zituzten (ORI-023/004)

Kartzelara eraman zituzten bertsolariak ez zituzten botatako bertsoen edukiagatik atxilotu, txibatoek esandakoagatik baizik. Behin Patxiri deitu zioten gobernutik, bertan aurkeztu zedin, baina Patxi ez zen aurkeztu, eta ez zioten berriro deitu.

355. Txomin garmendia atxilotu zutenekoa (ORI-023/006)

Soldadu zela bertsotan ibili zen Txomin, eta atxilotu egin zuten. Arantzazuko fraideei esker irten zela zioen berak.

356. Joxe Agirre eta Joxe Lizaso, kalabozoan (ORI-023/007)

Amezketako kalabozoan sartu zituzten Joxe Agirre eta Joxe Lizaso bertsolariak. Joxe Agirrek bertso saioa zuen, eta taxistak bertara eramango zuela esan, baina poliziarengana eraman zuen hau.

357. Imanol Lazkano kalabozora eraman zuten (ORI-023/008)

Imanol Lazkanori autoa lapurtu zioten, honek salaketa jarri, eta hurrengo goizean kalabozora eraman zuten, autoaren ondoan hildako Guardia Zibil bat agertu baitzen. Hogeita lau bat orduz izan zuten lotuta.

358. "Balio handikoa da neretzat euskara" (ORI-023/010)

Etxean ikasi zuen euskaraz Patxik, eta bai euskara eta bai Euskal Herria biziki maite ditu.

359. Soldadutzan gaztelania ikasi (ORI-023/012)

Burgosen egin zuen soldadutza Patxik, beste euskaldun askorekin batera. Bertan ikasi zuen gaztelania.

360. Kalean euskara gaizki ikusita (ORI-023/013)

Etxeko hizkuntzara mugatu zen euskara, kalean euskaraz egitea gaizki ikusita baitzegoen. Behin herriko nafar batek errieta egin zion Patxiri euskaraz egiteagatik.

361. Lasarteko euskararen egoera (ORI-023/015)

Herriko jende asko dago euskaraz jakinda, erabiltzen ez duena.

362. Musean aritzeko euskaraz ikasi (ORI-023/017)

Slamancatik etorri zen gizon batek euskaraz ikasi zuen, lagunik ez baitzuen musean aritzeko.

363. Bertso batzuk I (ORI-023/019)

Berak asmatutako bertsoak abesten ditu pasarte honetan Patxik.

364. Bertso batzuk II (ORI-023/021)

Berak asmatutako bertsoak abesten ditu pasarte honetan Patxik.

365. Bertso batzuk III (ORI-023/023)

Berak asmatutako bertsoak abesten ditu pasarte honetan Patxik.

366. Bertso batzuk IIII (ORI-023/025)

Berak asmatutako bertsoak abesten ditu pasarte honetan Patxik.

367. Santio Egunean ezagutu ziren (ORI-024/003)

Angek eta Marije Santio Egunean ezagutu ziren. Gaztetatik lan egin dute.

368. Orio eta estropadak (ORI-024/005)

Orion beti arraunerako afizioa egon da.

369. Umetako oroitzapenak; raketistak (ORI-024/006)

Marijeren umetako oroitzapenak, anai-arreben ingurukoak dira. Angelek futboleant asko jolasten zuen.

370. Raketistak (ORI-024/007)

Marijek, palan jolasten zuen amaren ezkutuan. Ez zegoen ondo ikusia emakumeek palan ibiltzea. Raketistak.

371. Estankoan lanean (ORI-024/008)

Bizitza guztian lan egin dute. Estanko bat zuten.

372. Erramu egunean berokia estreinatzen zuten (ORI-024/009)

Garai bateko Beasaineko eta Orioko jaiak. Erramu egunean berokia estreinatzen zuten.

373. Garai bateko euskararen egoera Beasainen eta Orion (ORI-024/011)

Angelen familia euskalduna da. Beasainen, La Sallen ikasi zuen eta dena gaztelaniaz ikasten zuten. Ordea, baserritarrentzat dotrina euskaraz izaten zen. Kanean, dena gaztelaniaz. Orion ordea, euskaraz egiteko ohitura gehiago zegoen eta debekua ez zen hainbestekoa. Euskaldunek euskaraz hitz egitearen konplexuak egoten ziren.

374. Komunikatzeko moduan aldaketak (ORI-024/012)

Garai batean, telefonoz deitzeko telefonostarekin hitz egin behar zen lehenengo. Gaur egun, komunikatzeko erak askoz errezagoak dira.

375. Dutxa aurrerapen handia izan zen (ORI-024/013)

Garai batean etxeetan arkakuso gehio zeuden. Nola garbitzen ziren. Dutxa, aurrerapen handia izan zen.

376. Lehenengo garbigailua (ORI-024/014)

Etxean lehenengo garbigailua Otsein markakoa zen. Nola erabiltzen zen. Orbanak kentzeko, arropa eguzkitan zabaltzen zen.

377. Beasainekoak "bareak" eta Ordiziakoak "azak" (ORI-024/016)

Kiroletan, Ordizia eta Beasainen arteko pikea egon da beti. Beasainekoei "bareak" deitzen zieten eta Ordiziakoei "azak". Pasadizo bat kontatzen du.

378. Umetako ibilerak, gaiztokeriak (ORI-024/017)

Umetako ibilerak: sagarrak eta gaztainak lapurtzen, errekan igeri egiten, jolasak...

379. Herrien arteko pikeak (ORI-024/018)

Herrien arteko pikeetan, batzuetan borrokak egoten ziren. Ordiziako jaiak Beasainekoak baino hobeagoak ziren.

380. Getaria eta Orioren arteko pikea (ORI-024/019)

Getaria eta Orioren artean pikea zuten, ziurrenik garai batetik etorritako arrantzaleen artean sortua. Zarautzekin ez zuten pikerik.

381. "Nere herriko neskatxa maite" (ORI-024/021)

Benito Lertxundiren "Nere herriko neskatxa maite" abesten du

382. Partiturak zuzentzen (ORI-025/001)

Organoarekin nota bat gaizki dagoenean, nola zuzentzen duen.

383. Euskaraz egiten diren akatsak (ORI-025/003)

Aiako elizan, meza noiz bukatu zain egoten zen, organoa jotzeko. Behin inguruko neska bat joan zitzaion eta Patxik errieta egin zion bere euskararengatik.

384. Gerra garaia Orion (ORI-025/004)

Gerran, Orion nazionalak irailaren 13an sartu ziren. Beraiek Aginagan egon ziren hiru egunez, tropak pasa bitartean. Ondoren frontea Bizkairantz joan zen. Hondatuta geratu zen zubi bat nola konpondu zuten kontatzen du.

385. Maria Maestra, genio handiko emakumea (ORI-026/001)

Amonak eskolaren erreleboa pasatu zion 1962an. Amonak genio handia zuen. 65 urtez egon zen eskolan lanean.

386. Orioko Goiko eskola (ORI-026/002)

Eskolan egunero aurrenekoz errezatu egiten zuten eta gero ikasi eta jolastu. Hurrek goxotasun handia ematen dute.

387. Euskaraz erakusteagatik, eskola itxi (ORI-026/003)

Eskola hartu zuenean, 200 ikasle zituen. Adinak. Amonari eskola itxi zioten hilabete batzuek, eskolak euskaraz emateagatik.

388. Eskolan dena euskaraz (ORI-026/004)

Eskola denak euskaraz ematen ziren eta ikasle erdaldunei hasieran gauza gaztelaniaz azaltzen zizkieten, baina gero dena euskaraz. Garai bateko eta gaur egungo umeak eta gurasoak.

389. Lantegiak erre zirenekoa (ORI-027/002)

Lantegiak erre zirenekoa kontatzen du.

390. Sereno lanak (ORI-027/003)

Bera aguazil sartzerako, udaletxea erre eta zegoen. Sei urtez aguazil aritu zen. Sereno zela egiten zituen lanak azaltzen ditu.

391. Putzura erori zenekoa (ORI-027/005)

Orioko moila eta plaza aldea argirik gabe egoten zen gauzez. Hala, eskailera zuloan hanka sartu eta putzura erori zen. Batelari heldu zion eta Rafael izeneko batek atera zuen batelaren gainera.

392. Emazteari labanez eraso egin zion gizona kalabozora (ORI-027/006)

Emazteari labanarekin erasotu zion gizon batek behin. Kalabozoan sartu eta makilakada batzuk eman zizkion.

393. Aia eta Orioko gazteak deman (ORI-027/009)

Lehenago baserritarrek lan handia egiten zutela dio. Elkartu ziren hamar gizon harriarekin demarako entrenatzeko eta inork ez zekien nola egin behar zen. Azkenerako, herritar batek azaldu zien nola moldatu eta hartu zioten neurria. Goizeko bostetan entrenatzen zuten.

394. Aia eta Orioko gazteak deman (II) (ORI-027/010)

Baskularekin pisatu zituzten demarako kide denak. Aiarren eta oriotarren taldeek berdintsu pisatzen zuten. Ordu erdian, hiru plaza eta erdi egin zituzten oriotarrek.

395. Gerra hasi zenean, etxea jendez beteta (ORI-027/013)

Bost urte zituen gerra hasi zenean. Etxe guztia jendez beteta izan zuten. Beldur ziren hiru lagun haizpera eraman zituen anaia zaharrenak.

396. Tiroak baserrira (ORI-027/014)

Gerra garaian, anaia sega-pikan ari zela, tiroa bota zioten. Morroi zegoen batek, kandela jarri zuen intxaurrondotik zintzilik eta tiro hots batean pasatu zuten gaua.

397. Aita zubian zaindari gerra garaian (ORI-027/016)

Gerran bota zuten zubia berreraikitzen nola ibili ziren gogoan du. Bere bi anai soldadu eraman zituzten. Bere aitak zaindari egin behar izan zuen zubian.

398. San Juan Mendi itsasontzian (ORI-028/002)

San Juan Mendi itsasontzian hasi zen lanean, hamalau urterekin. Nolakoa zen azaltzen du. Aita lau anaietan zaharrena zuen.

399. Hogeita hiru urterekin patroï (ORI-028/003)

Baporeari San Juan Mendi jarri nahi izan zioten baina debekatu egin zieten, euskaraz zelako. Aitaren ordez patroï hasi zen hogeita hiru urterekin eta hogeita hamalau urtez aritu zen.

400. Garai bateko itsasontziak (ORI-028/006)

Itsasontziak zeinek egin zituen kontatzen du. 1962an biolin erako itsasontziak egiten hasi ziren eta itsasontzi batetik bestera hobekuntzak egiten zituzten.

401. Urtean bi itsasontzi (ORI-028/007)

Arrantzaleak laguntzera joaten ziren ontziolara. Arotzak dozena erdi bat izaten ziren, itsasontzia egiterakoan. Urtean bi itsasontzi egiten zituzten.

402. San Juan Mendi itsasontzia egiteko egur motak (ORI-028/009)

San Juan Mendi itsasontzia pinuarekin egin zuten, Kanpezutik ekarritakoarekin. Arruti zerratokian mozten zuten egurra. Pieza batzuk haritzezkoak zituen eta beste batzuk egur afrikarrarekin egindakoak.

403. Itsasontzia eukalipto egurrez ere bai (ORI-028/010)

Itsasontzia luzatu egin zuten, Galizian. Eukalipto erabili zuten orduan.

404. Atunetara orain (ORI-028/013)

Zazpi metroko txalupa zeukaten eta orain ere badute. Etxekoekin ibiltzen da. Atuna arrantzatu eta enbotatu egiten dute sotoan. Tresnak eta piezak ditu sotoan.

405. Arraunak, sarea urrunarazten (ORI-028/015)

Itsasontzia saretik urrunarazten aritzen ziren arraunekin. Nola aritzen ziren kontatzen du.

406. Ala zertarako erabiltzen zen (ORI-028/016)

Alak nolakoak izaten ziren kontatzen du. Beraiek bi zorrotzak izaten zituzten, angulatarako. Anaiarekin ibiltzen zen. Orion ala gehienak ez ziren puntan bukatzen. Kale baserria zeukatenek belarra garraiatzeko erabiltzen zuten. Beraiek baporea garbitzeko erabiltzen zuten.

407. Batela, sotoan egina (ORI-028/017)

Ala pinuarekin eta haritzarekin egindakoa izango zela uste du. Batela ere pinuz egindakoa zen, 1947an edo 1948an. Sotoan egin zuten. Armazoa errematxatuta zeukan. Bere osaba Ximonek egin zuen, laguntzaile hartuta anaiak eta ilobak.

408. Itsasontzia garbitzea (ORI-028/021)

Batelari patentea ematen zioten baina ez bera ume zela. Ura behera zihuala, garbitzen zuten itsasontzia, hamabost egunean behin.

409. Ostrak eta almejak (ORI-028/023)

Ostraerari buruz jarduten du. Almejak biltzen emakumeak aritzen ziren. Non ibiltzen ziren kontatzen du.

410. Lanpernak biltzen (ORI-028/024)

Mutil kozkorrak zirela lanpernatara joaten ziren. Nondik nora ibiltzen ziren kontatzen du. Tabernara eramaten zituzten, prestatu ziezaizkieten.

411. Amaxapua eta izkirak, gutxi baina badaude (ORI-028/030)

Amaxapua galduta egon dela dio baina agertu direla dio. Izkirak ere badaudela dio baina gehiegi harrapatu izan direla dio.

412. Lehengusuak amua besoan sartu zueneko (ORI-028/032)

Itsasoan zirela, lehengusuak amu handia sartu zuen besoan. Berak nola atera zion kontatzen du, lixibarekin desinfektatuta.

413. Orioko barran kontuz ibil behar zen (ORI-028/035)

Korronte txarrekin zaila zen Orioko barran ibiltzea. Beraien aurreko belaunaldia hobeto moldatzen zela dio, gehiago ibiltzen zirelako. Bi lehengusu ito zitzaizkion hor.

414. Arrantzaleen bizimodua orain hobea (ORI-028/037)

Donostiara joaten ziren antxoa ateratzera. Asko elkartzen ziren han arraina saltzeko. Arrantzaleak orain lehen baino hobeto bizi direla dio.

415. Ontziolatik itsasora nola (ORI-028/042)

Itsasontziak eraikitzen ziren lekutik itsasora nola botatzen zituzten azaltzen du.

416. Musikak dedikazioa behar (ORI-029/003)

Bere kontura ikasi izan du asko. Etxean Argiaren egutegia hartzen zuten eta kantak ikasten zituen handik. Sei urte zituenerako koruan abesten zuen. Eskola garaian, bolada batez gorrotoa ere izan zion musikari, lagunak jolasean zebiltzan bitartean berak han egon behar izaten zuelako. Musika jolerik onena ordu gehien sartzen dituen delako dio.

417. Musikako titulurik ez (ORI-029/005)

Santiago Azurza organistarekin ikasi zuen, baina ez du musikako titulurik. Horren inguruko gogoetak.

418. Musika ikasteko aukera bakarra elizaren bueltan (ORI-029/011)

Garai batean musika ikasteko aukera bakarra elizaren bueltan zen. Kontserbatorioa Donostian bakarrik zegoen. Unibertsitate ere ez zen; ikasketak egitera kanpora joan behar. Elizan organoa ikasten zen, beste instrumentuak geroago etorri ziren. Remigio txistularia; berak egin zion txistua ebanoarekin.

419. Zinemaren eta errealitatearen arteko kontrastea (ORI-029/013)

Zinemaren inguruko kontuak. Gerraosteko gose garaian "o cena o cine" esaten omen zen. Zineman aberastasuna ikusi eta etxean miseria ikusteak jendea hondatzen zuela dio.

420. Berak asmatutako melodiak partituretan jartzen ditu (ORI-029/017)

Berari burura etortzen zaizkion melodiak partituretan jartzen ditu. Lehendik buruan ditugun doinuek eragina izaten dute, baina bera denak ezberdinak egiten saiatzen da. Berak sortutako melodia baten inguruko istorioa.

421. Erretiroa hartu ostean hasi zen ordenagailuarekin (ORI-029/023)

Erretiroa hartu zuenean, aktibitatearen bat behar zuela eta ordenagailuarekin hasi zen. Ikastaro batzuk egin zituen eta hainbat kontu egiten ikasi zuen ordenagailuarekin: kalkuluak, programak...

422. 7000 partituratik gora ordenagailuz eginak (ORI-029/024)

Erretiroa hartu ostean hasi zen ordenagailuarekin eta hainbat kontu egiten ikasi zuen. Interneta erabiltzeko ikastaroa ere egin zuen, baina ez da sartzen, denbora asko galarazten duelako. Halako batean, bestelako kontuak utzi eta musikarekin zentratu zen. Pixka bat desfasatuta dagoela ikusi arren, ez zaio axola, 91 urte izanda, nahikoa badelako horretan aritzea. 7000 partituratik gora ditu eginak. Ordu asko sartzen ditu.

423. Erregenetan Orion kantatzen den kanta (ORI-029/034)

Erregenetan Orion kantatzen den kanta Santiago Azurzaren eskuizkribu batetik ateratakoa da. Antxiolak eta Irurak kantatzen zuten koruan. Berak txukundu eta partitura atera zuen. Orion bakarrik kantatzen omen da eta berak zabalkundea eman nahi lioke.

424. Su bedeinkatuarekin abesten zuten kanta (ORI-029/035)

Duela urte asko Aita Donostia eta Resurreccion Maria Azkue ibili ziren herri-kanta zaharrak biltzen. Aste Santuan goizean izaten zen elizkizuna eta gero su-bedeinkatuarekin eskean ibiltzen ziren etxerik etxe. Hauxe abesten zuten: "Su zaharra kanpora, su berria etxera...".

425. Fotokopiagailua, asmakizun ona (ORI-029/040)

Fotokopiagailua asmakizun oso ona izan dela dio. Garai batean nola konpontzen ziren kopiak egiteko.

426. Ikasketekin jarraitzeko, herritik kanpora joan behar (ORI-029/041)

14 urtera arte ibili zen eskolan. Batxilerra egin nahi zuena Donostiara joan behar izaten zen eta unibertsitate-ikasketak nahi zituena, berriz, Zaragozara, Valladolidera edo Salamancara.

427. Garai bateko familia-transmisiorik ez (ORI-029/042)

Garai batean etxeetan ez zegoen telebistarik eta aitona-amonek istorio asko kontatzen zizkieten bilobei. Telebistak familia-giroa hondatu du. Gizonezkoek lan egiten zuten etxetik kanpora eta emakumeek josi egiten zuten.

428. Arraunen garrantzia (ORI-029/044)

Arraunaren inguruko kontuak. 1935ean egindako marka bat oraindik hobetu gabe dagoela eta zergatik ote zen ikertzen hasi zen. Arraunen garrantzia. Entrenamenduak

429. Aulki mugikorraren eta finkoaren (trainerua) arteko ezberdintasunak (ORI-029/045)

"Banko mobil" edo aulki mugikorrak hondatzen duela trainerua dio. Bien arteko ezberdintasunak azaltzen ditu.

430. Gizonak itsasoan eta emakumeak herrian; "eskabetxeria" (ORI-029/048)

Garai baten gizonak itsasora joaten ziren eta emakumeak eta alabak geratzen ziren herrian. Ekonomia etxeetan; emakumeak hari egurra sartzen, jatekoa prestatzeko. Eskabetxe-lantegian udaberrian izaten zen lana.

431. Fabian Loidiren olerkiko pertsonaia bera zela ohartu zen (ORI-029/051)

Fabian Loidi bertsolari eta olerkaria Orion hazi zen, aita gazterik hil zitzaiolako. Hark idatzitako olerki bat irakurtzean (´Orioko umezurtza´) berari buruz ari zela konturatu zen. Musika jarri zion olerki horri.

432. Pianoak afinatzen ibilia (ORI-029/053)

Loiditarrek pianoak afinatzen dituztela eta berak ere makina bat afinatu dituela dio. Bi piano ekarri zituen ontziolatik, barkuak desegiteko tokitik eta konpondu egin zituen. Handik hasi zen pianoak afinatzen. Azkenengoz afinatu nahian ibili zenarekin zer gertatu zitzaion. Pianoen sokak.

433. Landareek argirantz joateko joera (ORI-029/054)

Hainbat gairen inguruko interesa du eta esperimintatzea gustatzen zaio. Hazia lurrean bota, estali eta estalkiari zulo bat eginez gero, landareak argirantz joateko joera du.

434. Itsasoaren indarra, energia sortzeko (ORI-029/055)

Bizi guztian bere buruhausteetako bat izan dan beste gai bat: "marrotak" edo marea-errotak. Berari itsasoaren indarra aprobetxatzeko bi puntu gutxienez bururatzen zaizkio. Azalpenak ematen ditu. Energia-iturriak beharrezkoak dira, gero eta energia gehiago kontsumitzen da eta. Mundu-mailako arazo handi bat da, energia-iturriak agortu egiten direlako.

435. Garai bateko jolasak berreskuratzea zaila (ORI-029/060)

Garai batean uztaia prestatu bere txardangoarekin eta haren atzetik korrika ibiltzen ziren jolasean. Gaur egun ahalegina egin arren garai bateko jolasak berreskuratzeko, umek errazenera jotzen dute (sarritan teknologietara).

436. Garai bateko bizimodua: jertseak kakorratzekin, artilezko galtzerdiak (ORI-029/061)

Garai batean emakumeek kakorratzekin egiten zituzten jertseak. Artilezko galtzerdiak egiteko, artilea garbitu, matazan hartu, bihurria eman eta haria atera behar izaten zen.

437. Txipiroitarako tresnak beraiek eginak (ORI-029/062)

Garai batean txipiroitan nola egiten zuten. Pitarik ez zegoenez, zurdak (zaldien buztaneko ileak) erabiltzen ziren. "Kodainak" ere beraiek egiten zituzten, orratzak bihurrituta. Geroago Zumaiako lagun bat hasi zen makinarekin egiten.

438. Garai baten dena eskuz egina (ORI-029/063)

Gaur egun dena erosten ohituta gaude, baina garai batean eskuz egin behar izaten ziren, askoz ere esku-lan gehiago egiten zen. Egindako arroparik ere ez zen izaten, josi egiten ziren.

439. Lehenengo notak nola ikasi zituen (ORI-029/066)

Frontoian ibiltzen zen mutikotan. Frontoia nolakoa zen. Karmelo Eizagirrek irakatsi zizkion lehenengo notak frontoian, lurrean teilarekin marrak eginda. Ordurako haiek tiple taldea egina zeukaten. Horrelaxe hasi zen solfeoa ikasten. Gazterik hasi zen mezan koruan abesten. Errepublikaren hasieraren inguruko oroitzapenak.

440. Koruan gizonezkoak bakarrik (ORI-029/067)

Elizako koruan abesten zuen. Euskarazko kantak gutxi; liturgian dena latinez abesten zen. Koruan gizonezkoak bakarrik egoten ziren. Emakumezkoek ere abesten zuten, baina behetik. Aian organoa jotzen zuen garaian Zarautzera joan ziren kantura, fraideetara. Lehenengo aldia izan omen zen emakumezkoa korura igotzen zena. Emakumeek buruko zapiarekin joan behar izaten zuten elizara.

441. Embil pilotariaren omenaldian eztabaida, mezaren harira (ORI-029/070)

Santiago Azurza organistak tiple taldea zuen. Tipleak mutikoak izan ohi ziren. Gizonezkoek 14 urte ingururekin ahotza aldatzen zaie, baina emakumeek ez. Victor Embil pilotariari omenaldia egin zitzaionean, `Stella Maris´ meza abestu behar zuten. Victorren semeak gizonezkoen ahotsean abestea nahi zuen, bera

ere tenorea zen eta. Baina organista ez zegoen ados eta eztabaida horren harira haserretu egin ziren. Jende asko joan zen omenaldira, Iparraldeko jendea ere bai.

442. Gerra garaiko oroitzapenak; anaia frontean (ORI-029/073)

Gerra garaiko oroitzapenak. Kanoia jarri zuten Aldapeko mendian, Mendizorrotzera disparatzeko. Milizianoak etorri ziren handik. Zubiak leherrarazi zituzten eta beraiek Aginagara joan ziren, tropak pasa bitartean. Frontea Bizkaia alderantz joan zen. Anaia soldadutzatik libratu zen arren (aita falta zutelako), gerrara joan beharra izan zuen. Zugaztietatik (La Arboleda) idatzi zien eskutitz bat.

443. Anaiak gogor lan egin behar, familia aurrera ateratzeko (ORI-029/074)

Anaiak bihotzeko gaitza izan zuen, baina aurrera atera zen. Lan asko egin behar izan zuen familia aurrera ateratzeko, aita falta baitzuten. Zortzi lagun bizi ziren etxean, bi izeba ezkongabe ere beraiekin bizi ziren eta. Singer josteko makinak saltzen ibiltzen zenari amak esandakoa.

444. Perretxikoen esporak aztertzen mikroskopioarekin (ORI-029/077)

Behin Donostian perretxikoen inguruko liburu bat ikusi zuen. Beti kuriositate handikoa izan denez, hura hartu eta eskolatik ekarritako mikroskopioarekin perretxikoen esporak aztertzen hasi zen. Esporak zer diren; kolore ezberdinetakoak izaten dira.

445. Perretxiko bat sailkatu nahian esporekin izan zituen gorabeherak (ORI-029/078)

150 perretxiko mota ezagutuko dituela dio. Perretxiko bat sailkatu nahian haren esporekin nolako buruhausteak izan zituen kontatzen du. Perretxikoen sailkapena: hilgarriak, jangarriak...

446. Perretxikotarako filosofia (ORI-029/079)

Perretxikoekin pixkanaka hasi beharra dago, pixkanaka ezagutzen joan eta argi ibili. Igerian jakitearekin egiten du konparaketa: ez dakiena ez da hiltzen, ez delako ausartzen; zerbait dakienak edo zerbait dakiela uste duenak izaten du arriskua. Perretxikoen mundua oso zabala da.

447. Surf-oholak egiten (ORI-029/083)

Lantegia utzi ostean, Donostian surf-ohol bat ikusi zuen behin erakusleihoan eta orduantxe hasi zen oholak egiten. Bera familia behartsukoa izan denez, ohol merkeak egiten hasi zen hasieran. Gero, gazteek eskatuta, "foam"arekin hasi zen. Nola eta zenbat denboran egiten zituen.

448. Kanaberak egiteko, tornua nola prestatu zuen (ORI-029/088)

Surf-oholak eta kanaberak egiten zituen garai baten, bizimodua ateratzeko. Kanaberako egiteko, berak prestatu zuen tornua, "rotabatorra"ren motorra erabilita.

449. Gerra garaian zubi birakaria lehertu zuten (ORI-029/090)

Gerra garaian zubia apurtu zuten. Zubia biratu egiten zen karga-ontziak pasatzeko. Arozena fabrikara joaten ziren materiala eramatera. Nola leherrarazi zuten zubia biratuta zegoen unean. Leherketaren ondorioak eraikinetan.

450. Presoek berregin zuten gerran lehertutako zubia (ORI-029/091)

Gerra sasoiari lehertu zuten zubia nola konpondu zuten. Hasieran egurrezkoa egin zuten, baina gutxi iraun zuen. Gero, preso hartu zituzten milizianoak jarri zituzten zubia berregiten. Beraz, zubia errepublikanoek apurtu zuten eta beraiek berregin behar izan zuten. Zubiaren obren inguruko azalpenak.

451. Garai baten nahikoa arrain Orion; sardinatan (ORI-029/095)

Garai batean nahikoa arrain izaten zen Orion. Orioko marinelak berandu hasi zirela atunetara joaten dio. Garai bateko Orioko Kanposantura igotzen ziren itsaso ona zegoen begiratzera. Sardinatara goizaldean. Gero Donostian saldu. Arratsaldean siesta egin eta iluntzean berriz sardinatara.

452. Garai bateko Orioko toponimoak (ORI-029/097)

Gaur egun Zakilaneko aldapa esaten diotenari Kartzela kalea deitzen zion amak, garai batean kartzela zegoelako. Beraiek Hondartzako aldapa esaten zioten. Garai bateko Orioko Kofradia ondotik hasten zen arrapala. Olatuek gogor jotzen zuten.

453. Garai batean arrain gehiago (ORI-029/098)

Arrantza-kontuak. Garai batean erresakak "amabirjiña" ("jibia") ugari ekartzen zituen. Garai batean batelak arrainez beteta ekartzen zituzten.

454. Hika egiteagatik, zigortuak (ORI-032/002)

Aitak ez zien uzten etxean elkarren artean hika egiten eta zigortu egiten zituen. Amak amonari berorika egiten zion.

455. Orioko asko aldatu da (ORI-032/006)

Familiako etxea. Etxe ondoan ikaztegi bat zegoen eta bertan mutil gazte batek lo egiten zuen.

456. Arropa nola garbitzen zuten Orion (ORI-032/007)

Orioko asko aldatu da azken urteetan. Latsarrira edo labaderora nora joaten ziren kontatzen dute. Hamalau urterekin eskabetxean lanean hasi ziren.

457. Egun osoan lanean, baina pozik (ORI-032/008)

Garai batean aita arrantzara joaten zen, ama lantegira eta alabek egin behar zituzten etxeko lanak. Bizimodua gogorra zen bazen ere, beste zoriontasun batekin bizi ziren.

458. Hamar urterekin eskabetxean lanean (ORI-032/009)

Hamahiru urterekin hasi ziren eskabetxean lanean, etxean dirua behar zutelako. Aurretik, hamar urterekin, eskolara joaten ziren baina arratsaldean eskabetxera joaten ziren arrainei buruz kentzera. Mahaira ez ziren ezta ondo iristen eta kaxen gainean ipintzen ziren zutik. Ondorengoentzat ez dute nahi izan horrelako bizitzarik.

459. Eskabetxeko soldata, 100 pezeta astean (ORI-032/011)

Eskabetxean lanean hasi ziren hamahiru urterekin. Astean ehun bat pezeta irabazten zituzten. Arraina sartzen bazen, lanera joan behar izaten zuten, jaiegunetan ere.

460. Etxeko andrea: soldatarik ez, balorerik ez (ORI-032/012)

Hogei urterekin hotelean lanean hasi zen eta bertan ibili zen ezkondu zen arte. Ezkondu eta gero, etxean lan egin zuten. Lan gogorra zen, soldatarik gabea eta baloratu gabea. Maria Luisak dio berarentzat obsesioa izan zela bere alabak ikastea eta lan bat izatea, etxean ez geratzea etxeko-andre bezala. Maribelek, familiako helduen zaintza guztia beregain hartu behar izan zuen.

461. Emakume eta neska asko eskabetxean lanean (ORI-032/013)

Eskabetxean neska gehiago ibiltzen ziren lanean, mutilak itsasora joaten zirelako. Orion diru asko mugitu izan da, itsasoko-lana dela eta. Emakumeak ez ziren itsasoan arrantzan ibiltzen, bai ordea anguletan edo ostrak hartzen.

462. Angula asko jaten ziren Orion (ORI-032/014)

Garai batean, angula asko jaten ziren Orion. Angulen-salmenta. Babarrunak eta angulak jaten zituzten. Nahiz eta gosea zegoen, beraiek beti izan dute zer jan, baratzea zutelako. Txokolatea.

463. Garai bateko gosea (ORI-032/015)

Amonak, Goiko kalearen erdian pertza handi bat eramaten zuen, patata txiki egosiekin. Hau guztiak inguruan biltzen ziren han askaria jateko. Beraiek, aitonaren baratzea zuten eta ez zuten goserik pasatzen.

464. Udan itsasoan, neguan lantegian (ORI-032/016)

Neguan ez ziren arrantzaleak itsasora ateratzen eta beste lan batzuk egiten zituzten, adibidez lantegian edo ontzioletan.

465. Atuna, lan zikina eta gogorra (ORI-032/018)

Betidanik ezagutu duten atunaren kanpaina. Lan zikina eta gogorra zen.

466. Eskabetxerako lana, oso gogorra (ORI-032/019)

Eskabetxerako lana, oso gogorra zen. Gero, mekanizatzen joan zen. Antxoa moilara heltzen zenean, goizeko hiruretan joaten ziren kamioiak kargatzera eta gero eskabetxera lanera. Ama zenez eskabetxerako arduraduna, bi alabak berarekin eramaten zituen.

467. Orion, antxoa eta atuna lantzen zen eskabetxean (ORI-032/020)

Antxoarekin eta atunarekin lan egiten zuten eskabetxeran. Atuna, Azkue lantegian ibil zirenean bakarrik lantzen zuten. Soldatak.

468. Soldata extra kapritxoetarako, ez doterako (ORI-032/021)

Lanean irabazten zuten soldata estrarekin, amak arreo edo doterako maindireak erosteko esaten ziola kontatzen du Maribelegn. Berak, ordea, ez zuen nahi. Bere gauzetan eta arropetan gastatu nahi zuen dirua.

469. Antxoak harrapatzeko aintzinako harizko sareak (ORI-032/022)

Antxoa harrapatzeko sareak harizkoak ziren eta pisu handia zuten. Makila batzuekin zabaltzen zituzten. Garai batekoak maindireak bezalakoak ziren. Gaur egungo sareak oso handiak dira.

470. Sareak lehortzeko makilak herri guztian zehar (ORI-032/023)

Sareak makiletan lehortzen ziren. Batzuetan, espazio falta zela eta, txandaka lehortzen ziren sareak. Leku guztietan makilak egoten ziren, arrantza bait zen herriaren lehentasuna.

471. Orioko hondartzak nolakoak ziren (ORI-032/025)

Garai batean Orioko bi hondartzak guztiz ezberdinak ziren. Hondartza handira joaten ez zieten uzten, arriskutsua zelako. Urtero itotzen zen baten bat.

472. Azkue eta Detrici kontserben jatorrizko kokapenak (ORI-032/027)

Eskabetxean erabiltzen zuten gatza, kamioiekin eramaten zen. Garai batean, astoarekin eramango zituzten. Azkue eskabetxera hasiera frontoiaren alboan zegoen baina gero lekuz aldatu ziren eta Detrici-rekin eraikina banatzen zuten. Detrici-ren jatorrizko kokalekuan orain fruta-denda bat dago.

473. Emakumez betetako autobusak, eskabetxean lan egitera (ORI-032/030)

Udaberrian eta udan, pertsona askok lan egiten zuten eskabetxeetan. Azpeititik emakumez betetako emakumeak heltzen ziren Oriora, eskabetxean lan egitera. Emakume batzuek ezkondu eta gero ere eskabetxean lanean jarraitzen zuten, adibidez, haien ama.

474. Eskabetxean lanean pozik (ORI-032/032)

Garai batean, Orioko neska gazte gehienek egiten zuten lan eskabetxean. Haien ama eskabetxeko arduraduna zen, baina behararengatik sartu ziren lanera bertara. Hasieran eskolara joan behar zuten, etxera bazkaria egitera joan eta gero eskabetxera. Gero, eskola utzi zutenean pozik joaten ziren eskabetxerara.

475. Atuna nola poteratu; neurriak (ORI-032/034)

Atuna oliotan eta olio eta ozpinetan egiten ziren. Presio-eltze erraldoietan egosten zen atuna. Latak eta poteen neurriak ezberdinak izaten ziren. 5kg-koak tabernetarako izaten ziren.

476. Atun eta antxoa latak eskuz itxi behar (ORI-032/035)

Atun eta antxoa latak nola izten ziren kontatzen dute. Latak eskuz itxi behar ziren. Itxita zeudenean, zerrautsean igurtzen ziren, olioak kentzeko.

477. Amantala jantzita lanera (ORI-032/036)

Eskabetxera zakuzko amantala handi batzuekin joaten ziren. Amantalak eleganteak izaten ziren.

478. Antxoa prentsatzeko prozesua (ORI-032/038)

Antxoa gatzetan prentsatzeko prozesu osoa kontatzen dute. Italian saltzen zen antxoa gatzetan.

479. Saregile gehienak, armadoreen senideak ziren (ORI-032/041)

Haien ahizpa zaharrena ibiltzen zen sareak konpontzen. Normalean, armadoreen senideak ibiltzen ziren sareak konpontzen. Gaur egun saregileak eta arrantzaleak falta dira.

480. Orioko barra, oso arriskutsua (ORI-032/042)

Itsasontzien uretaratzea gertatzen zenean, herri guztia plazara joaten zen ikustera. Orioko barra beti izan da oso arriskutsua eta bapore bat ateratzen zenean, beste bat zain geratzen zen badaezpada. Karmele ontziko hildakoak.

481. Getariara izotz bila (ORI-032/043)

Itsasontziak bueltatzen zirenean, asko Getariara joaten ziren, Orion zegoen barra zela eta. Izotz bila ere Getariara joaten ziren.

482. Zazpi urterekin arraina gazitzen (ORI-032/045)

Ama Donostiakoa zuten eta zazpi urterekin portuan lanean ibiltzen zen arrainak gazitzen. Kaxa batzuen gainean egon behar izaten zuen, ez zelako mahaira heltzen.

483. Arrain-saltzaileak, arrantzaleen emazte eta alabak ziren (ORI-032/046)

Arrain-saltzaileak emakumeak izaten ziren beti. Arrantzaleei arraina ere ematen zieten eta batzuek gero saldu egiten zuten hori. Arrain-saltzaileak, arrantzaleen emazte eta alabak ziren. Itsasotik bueltatzen zenean, aita deskantsatzen utzi behar zen eta lan guztiak emakumeak egiten zituzten.

484. Garai bateko Orioko (ORI-032/047)

Garai batean, Orioko moila askoz txikiagoa zen eta urez betetzen zen. Udaletxe azpian espetxea zegoen eta egunera pasatu behar zuten bertatik, udaletxean ere eskola zegoelako.

485. Arrain asko zegoen lehen (ORI-032/048)

Garai batean Orion 30 itsasontzi edo gehiago egoten ziren moilan. Denak ezagutzen zituzten. Arrain mordoak arrantzatzen zen eta sobran egoten zen. Askotan ez zekiten zer egin arrainarekin.

486. Motor txikidun ontziekin errekan gora arrantzan (ORI-032/050)

Itsasontziak banan-banan ateratzen ziren moilatik, eta batzuetan atzeraka ere. Errekan gora ere arrantzan egiten zen, motor txikidun ontziekin. Errekan gora pita luze batzuk botatzen ziren eta gauetan jaso egiten ziren. Gaur egun erreka ez dago hain garbi eta arrain gutxiago dago.

487. Arrain-zakarra beti etxean (ORI-032/052)

Etxean jaten zen arraina: txitxarroa, berdela, gaztainka, katuarraina... "Arrain zakarra" deitzen ziotena, gaur egun luxuzko produktua da. Osabak bakailaoa ekartzen zien.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com